

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN BILAKAERA. INTERPRETAZIORAKO PROPOSAMEN BAT

Ane Larrinaga Renteria

*Soziologia eta Zientzia Politikoetan doktorea, Parte Hartuz ikerketa talde egonkortuko ikertzailea
(Euskal Herriko Unibertsitatea)*

LABURPENA

Artikulu honetan euskararen aldeko mugimenduak 80ko hamarkadatik gaur egunera izandako bilakaeraren alderdi batzuk aztertzen dira. Metodologia kualitatiboaren bitartez lortutako datuen laguntzarekin, garaian garaiko baldintza sozial eta politikoei egokitu nahian euskalgintzak eratu dituen interpretazio markoak aztertzen dira, bestela adierazita, hizkuntzaren auzia definitzeko mugimenduak sortutako diskurtsoak. Horien artean, euskal hiztunen multzoa eraikitze eta trinkotzeko bidean hiztun komunitatearen inguruan egindako formulazioetan jartzen da arreta berezia. Ildo horretan, gero eta anitzagoa den Euskal Herriko gizartean komunitate-eraikuntza saio horrek mugimendu gero eta instituzionalizatuagoari sortzen dizkion dilemak eta desafioak nabarmendu dira, besteak beste, herri partaidetza eta askotariko euskal hiztunen integrazioa lortze aldera mugimenduak beren diskurtsoak eguneratzeko duen beharra.

Gako hitzak: euskararen aldeko mugimendua, hiztunen komunitatea, interpretazio markoak

Jasotze data: 2017ko apirilaren 05ean. Onartze data: 2017ko apirilaren 24an

THE EVOLUTION OF THE PRO-BASQUE LANGUAGE MOVEMENT. A PROPOSAL FOR HOW TO INTERPRET IT

ABSTRACT

This paper analyses some aspects of the evolution of the pro-Basque language movement from the 1980s to the present day. Based on the data gathered using a qualitative methodology, the paper analyses the interpretative frameworks established by the Basque cultural field in an attempt to adapt to the social and political conditions of the day. In other words, the paper analyses the discourses generated by the movement to define the language problem. Special attention is paid to the discourses constructed about the Basque language community as part of an effort to build and consolidate a critical mass of Basque speakers. In this sense, in a Basque society that is becoming increasingly diverse, the dilemmas and challenges which this community-building project poses to an increasingly institutionalised movement have become patent, with one such challenge being the need for the movement to update its discourse in order to ensure citizen engagement and the integration of a wide range of different Basque speakers.

Key words: pro-Basque language movement, language community, interpretative frameworks.

SARRERA

Euskalgintza izenez ezagutu den euskararen aldeko ekimena ibilbide luzeko egintza kolektiboa dugu. Zaila da haren hasiera unea denboran zedarritzea. Eta zaila da gaur egunera arte buruturiko egintza kolektiboaren eremuaren mugak eta norainokoak ere argi definitzea, askotariko pertsonak, eragileek eta elkarteek parte hartu baitute denboran zehar askotariko ekimen andana batean. Gure hautua egintza multzo hori “mugimendu sozial” kontzeptuaren argitan aztertzea da, mugimendu sozialen analisi soziologikoan erabili ohi diren erreminta teoriko zenbait baliatuta. Kontzeptualizazio hori egitean ez da gure asmoa euskararen aldeko egintza kolektiboaren bilakaeran inplikaturik egondako eragile guztien berri ematea, ezta mamituriko ekimen-mota guztiak aipatzea ere. Edozein interpretaziotan ohikoa den bezala, analisia lehenetsiko da deskribapenaren gainetik eta, horretarako, euskararen aldeko ekimenaren alderdi jakin batzuk, bereziki diskurtsoei lotutakoak, nabarmenduko dira beste batzuen gainetik.

Horrenbestez, ondoren garatzen den artikularen helburua euskararen aldeko mugimenduak (EM, aurrerantzean) 80ko hamarkadatik gaur egunera arte izandako bilakaeraren aspektu batzuk aztertzea da, mugimenduak bizi izan dituen eraldaketa esanguratsu zenbaitetan arreta jartzea, eta, aldi berean, gogoeta horretarako beharrezkoak diren tresna kontzeptual eta teoriko zenbait aurkeztea. Lehendabizi, euskal gizartean eta euskal politikan -bereziki, esparru nazionalistan- bizi izandako hainbat aldaketen testuinguru orokorrean azaldu nahi dira mugimenduaren hasierako mudantzak. Bigarrenik, mugimenduaren gaur egungo egoerara iritsi arteko prozesuak irakurri ahal izateko EMak osatutako interpretazio-marko orokorrak zirriboratu nahi dira, hau da, hizkuntzaren auzia definitzeko diskurtsiboki sortu dituen esanahiak; horien artean, bereziki hiztun komunitatearen inguruan eratutako diskurtso batzuetan jarriko da arreta berezia. Azkenik, egindako berrikusketari buru emateko, mugimenduaren gaur egungo zenbait dilema eta erronka aipatu gura dira. Mugimendu sozialen ikerketan erabili ohi den ikuspegi kulturalistari jarraituko zaio hori guztia egiteko.

Behin baino gehiagotan saiakeraren formatua daukan arren, artikuluan egindako analisia datuez ere elikatu da. Analisiaren oinarrian dauden datuak sortzeko teknika kualitatiboak erabili dira. Mugimenduaren erakunde eta sentsibilitate desberdinetako informatzaileei testuaren egileak egindako sakoneko elkarrizketen bitartez jaso dira, alde batetik, datu horiek. Guztira, 23 sakoneko elkarrizketa erdi-egituratu erabili dira. Horietatik, hamar 2005ean, eta beste hamahiru 2015ean gauzatu dira. Elkarrizketaturiko pertsonak euskararen aldeko mugimenduan izan duten kokapen kualifikatuaren arabera hautatu dira; denek daukate ibilbide luzea aktibista gisa, -aditu, teknikari edo dibulgatzaile roletan-, eta kokapen horrek euskalgintzaren bilakaerari buruzko ikuspegi erreflexibo batez hornitu ditu.

Bestalde, mugimenduaren erakundeetatik aro desberdinetan sortutako agirien eta argitalpenen laginketa ere osatu da, idazki horien berrikusketa egiteko. Horretarako, hainbat erakunderen webguneak arakatzear gain, euskalgintzaren inguruan argitara emandako era guztietako testuak hartu dira aintzat, beti ere analisiaren helburuetarako esanguratsu jo direnean.

2. FRANKISMOAREN GARAITIK JASOTAKO ERREIBINDIKAZIO MARKOAREN KRISIA

Denbora luzean iraun duten beste mugimendu sozial batzuen antzean, euskararen aldeko mugimenduak ere askotariko adierazpenak eta erakundeak garatu ditu sorrera unetik aurrera, iraupen horretan testuinguru sozial eta politiko aldakorretara egokitu behar izan duelako bere dinamika. Batik bat, mugimenduaren beraren egintzei zentzua eman dioten hizkuntzari buruzko era askotako ikuspegi kultural eta estrategia politikoren sortzaile izan da euskalgintza. EMaren azken urteetako eboluzioaren azterketak erakusten duenez, euskara ulertzeko modu desberdinak sortu dira haren baitan eta euskarari hainbat esanahi esleitu zaizkio testuinguru jakinetan. Aipaturiko aldaketak ez dira ondoriorik gabe etorri; behin baino gehiagotan, eztabaida sakon eta barne zatiketekin batera hezurramitu dira mugimenduaren estrategiaren birak. Segurki, eten horiek euskal gizarte garaikidean gertatutako aldaketa politikoei eta sozio-kulturelei lotuta gauzatu dira.

Mugimendu sozialak sineste eta ideia kolektiboen eroale izan ohi dira, eta osagai kultural horiek gauzatzen ahalegintzen dira egintza kolektiboaren bitartez. Hartara, esanahien sorkuntzan nahiz esleipenean nahasita dauden aldaketa eragileak izaten dira, bai mugimenduan parte-hartzaile diren pertsonentzat bai gizarteko gainerako kideentzat. Esanahi esleitze horren bitartez, mugimenduek gizartean eskuragarri dauden osagai kulturalak hartuta egituratzen eta moldatzen dituzte beren diskurtsoak. Horrela, garrantzitsu jotzen dituzten gertakariak interpretatu, diskurtso-testuinguru batean “enmarkatu” eta zentzua ematen diete gertakarioi (Snow, Benford, 1988; Hunt, Benford, Snow, 1994; Benford, Snow, 2000), jendearen egintzarako motibazioak suspertzeko asmoarekin. Azken batez, errealitate sozialaren irudikapen eta pertzepzio jakin batzuk bideratuko dituzten egitura kognitiboak ezartzen dituzte enmarkatze-lanek. Baina, lanketa ideologiko horrek eduki kognitiboak ez ezik osagai emozionalak ere izan ohi ditu, ezagutza eta emozioa lotu-loturik agertzen direlako egintza kolektiboaren eraikuntzan. Mugimenduen azterketan eta, oro har, jarduera sozialaren analisisan saihestu egin da luzaroan emozio osagaien eragina. Baina, azken urteotako ikuspegiek erakutsi dutenaren ildotik (Goodwin, Jasper eta Polletta, 2001; Goodwin eta Jasper, 2006), mugimenduek egiten duten diskurtso-sortzeak ezagutzak ez ezik emozioak ere birbideratzen ditu (Jasper, 2011; Kemper, 2001), egoera sozialean inplikaturik dauden emozioen egoitzapena eskatzen duelako lanketa ideologikoak. Horrenbestez, interpretazio-marko

baten (nahiago bada, diskurtso baten) sorrera nahiz aldaketa emoziozko eraldaketa ere izan ohi da, nahitaez.

Interpretazio-markoen analisiari jarraiki, euskalgintzak garatutako diskurtsoak EMak euskal mugimendu nazionalistarekin izandako lotura historikoaren argitara ulertu behar dira. Euskal nazionalismoak nazio komunitatea eraikitzea izan du helburu eta EMak, berriz, euskara berreskuratzeko euskal hiztunen komunitatea eratzea, azken urteetako diskurtso-joraketari jarraitzen badiogu, behinik behin. Historian zehar adiera desberdinak jaso dituzten arren, bi eraikuntza-proiektu horiek diskurtsoetan bat etorri dira behin baino gehiagotan, eta elkar elikatu dute, alegiazko komunitate baten inguruko ideia eta esanahien interpretazio-marko komuna osaturik.

Hala, zaila da euskalgintzak azken urteetan izan duen bilakaera ulertzea XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan euskal nazionalismoak bizi izandako aldaketa aintzat hartu gabe, eta EMaren lehen urratsak aldaketa horren esanahi-markoan kokatu gabe. Egiazki, 60ko garaiko balio, ideia eta korrante politikoaren eragina zuen belaualdi gazte batek parametro berrien arabera definitu zuen hizkuntzaren eta aktibismo kulturalaren funtzioa frankismoaren aurkako erresistentzia nazionalistaren agertokian (tartean zeuden hainbat eragin: ezkerreko ideologia politikoak eta laizismoa, askapen nazionalari lotutako kanpoko esperientziak, eta deskolonizazioaren aurkako borroken erreferentzia, besteak beste). Hain zuzen ere, aktibismo kultural hori euskal nazioaren eraikuntzaren ildo berean kokatzen da 60ko gazte nazionalisten formulazioan. Hartara, urte horietan gertaturiko pizkunde kulturalak bat egiten du euskal mugimendu nazionalistaren eraberritzearekin. Areago, 60an sortzen ari den mugimendu kulturalaren eta mugimendu nazionalista eraberrituaren proiektuak nahiz egintzak ia bereizezinak dira hastapenetan. Izan ere, 60ko nazionalismoaren ideologo berriek termino kulturaletan definitu zuten nazio “irudikatua”; zehazki, termino linguistikoetan mugatu zuten euskal nazioaren funtsa. *“El nacionalismo es, primordialmente, una tarea cultural (...) El nacionalismo vasco deberá impulsar a sus seguidores a que adquieran toda clase de conocimientos empezando por el de la propia lengua”* (Krutwig, 1979: 266). *“El euskera es la única lengua nacional de todos los vascos. El euskera genera los atributos y características de la nacionalidad (...) El euskera es, en suma, la razón de ser del nacionalismo vasco. Sin euskera no hay nación vasca”* (Documentos ETA)⁸. Ezaguna denez, nazionalismo kulturalaren ideologoen ekarpenek, bereziki Krutwigek eta Txillardegik egindakoek, itzelezko eragina izan zuten definizio horretan.

Horiek horrela, 60ko eta 70eko urteetan sortutako EMak aldi horretan berpiztutako mugimendu kulturean eta nazionalistan dauzka bere erroak (Garmendia eta Urteaga, 2017). Mugimendu politiko-kultural horrek euskara euskal identitatearen ikur nagusitzat hartu zuen eta, hori egitean, balio politiko erantsia esleitu zion hizkuntzari,

8 Jokin Apalategik aipatua (Apalategi, 1985:248).

baita hizkuntzaren aldeko ekimenari ere. Harrez geroztik, euskarak balio sinboliko handia eduki du -eta dauka-. Zalantzarik gabe, garai horretan balio pragmatikoaren gainetik zegoen hizkuntzaren ikur funtzio horrek (Tejerina, 1992) euskal hiztun ez diren pertsona askoren atxikimendua ahalbidetu du kausa linguistikoaren alde, gaur egunera arte. Baina, EMak une hartan jasotako elkartasun sozialak beste oinarri bat ere bazuen. Bada, frankismoaren aurkako bestelako mugimendu eta indar politikoen sintonia berean egotean, haren diskurtsoa eta egintzak interpretazio-marko orokor batean –*master frame* zabalagoan (Snow, Benford, 1992)- kokaturik zeuden, diktaduraren aurkako eskakizun demokratikoen aldarrian gainerako eragile askorekin bat eginik. Ikuspegi horretan, euskararen aldeko egintza kulturala egintza politikoaren ildoan kokatuta zegoen eta, begikotasun formala jasotzen zuen frankismoaren aldiko erresistentziaren testuinguruan.

Hari horretatik, 80ko hamarkadara arte frankismoaren azken urteetan nagusituriko logikan ulertu zuen euskalgintzak bere zeregina. Frankismoan EMak landutako diskurtsoak bi oinarriren gainean definitu zuen hizkuntza egoera. Batetik, hizkuntzen arteko harreman asimetrikoa hizkuntza gatazka modura zehaztu zuen diskurtso horrek, areago, nazio auziaren adierazpentzat jo zuen hura. Hori egitean, 60ko hamarkadatik aurrera euskal nazionalismoak definituriko nazio etniko-kulturalaren ildo berean kokatu zuen mugimendua aipatu formulazioak. Eta nazionalismoaren komunitate-ikuspegi bera bereganatu zuen EMak hizkuntzari buruzko planteamenduetan. Izan ere, euskal nazionalismoaren helburu zen nazio komunitatearen eraikuntzarekin bat egin zuen EMaren egintza kulturalak. Halaber, frankismoak euskal kulturaren adierazpen ororen gain ezarritako zapalkuntzak nabarmendu egin zuen jazarpenaren pertzepzioa euskal gizartean eta lagundu egin zuen mugimenduaren izena eta hark definituriko “bigabekeria markoa” (Gamson, 1992) hedatzen jende askoren sen oneko ezagutzan, sektore nazionalistetatik harago ere. Garaiotan, euskarari buruzko diskurtso aldarrikatzailea euskal nazionalismoaren diskurtso orokorragoaren markoan kokaturik zegoen; baina, hein batean, erregimenaren aurka ziharduten indar politiko guztiek zeukaten formalki berenganatuta euskararen aldeko eskabide lausoa. Bestetik, “hizkuntzaren auziaren” gakoa era politikoan definiturik zegoen EMaren diskurtsoan, eta auziaren soluzioa erakunde politikoen eta haien erabakiguneen botere-esparruan irudikatzen zen. Ondorioz, euskararen “normalizazioa” zeritzona, botere instituzioen kontrolari eta proiektu politikoen markoari loturik ulertzen zen: euskararen ofizialtasunaren onespena, euskararen “lurraldetasunaren” aitortza, eta euskal hiztunen eskubide politikoen lorpena ziren, besteak beste, eskakizun nagusiak.

Ezbairik gabe, Francoren heriotzak ziklo politiko eta sozial berriari hasiera eman zion Euskal Herrian. Izan ere, Espainiako estatuaren birmoldaketa autonomikoak euskal nazionalismoak aldarrikaturiko lurraldeen zatiketa ekarri zuen, eta euskal hiztunak administrazio politiko-administratibo desberdinen mende jarri zituen Hego Euskal

Herrian. Hala, abian jarritako instituzionalizazio politikoak zatitu egin zituen euskal indar nazionalistak, eredu autonomikoaren aurrean hartutako estrategien arabera: alde batetik, EAJ, marko juridiko-politiko berrira egokitu zena eta hura kudeatu zuena, eta beste aldetik, antifrankismoaren herentzia sinbolikoa bereganatuta, erreformaren aurka agertu zen Ezker Abertzalea. Azken horrek instituzioen aurkako egintza ereduak hartu zituen beretzat, herri ekimen eta mugimendu sozialen multzo batean oinarri hartuta. ETAREN estrategiari emandako sostenguak, gainera, areagotu egin zuen bien arteko zatiketa. Euskararen aldeko mugimenduaren oinarri sozial nagusia zen euskal nazionalismoaren barne hausturak ondorio larriak eragin zituen EMAN, hainbestekoak non, huts egin zuen une hartara arte haren jarduera gidatu zuen logikak. Krisia dimentsio afektibo handiko astindu modura bizi izan zen EMAN, ezin baita ahaztu nazioaren dimentsioetako bat emoziozkoa eta bizipenezkoa dela (Connor, 1998). Horrenbestez, ordura arteko unibertso nazionalista ezaugarritu zuen irudikapen komunitarioaren haustura sinbolikoa ekarri zuen zatiketa politikoak. Eta etsipena zabaldu zuen euskaltzale askoren artean.

Garai hartako EMAREN krisia bi gatazka-ardatzen inguruan ulertu daiteke. Lehenengo ardatza instituzio/mugimendu dualismoaren oposizioan kokatu zen. Bigarrena, nazionalismo kontserbadore/ezkerreko nazionalismo kontraktasunean (Larrinaga, 2007; Larrinaga eta Amurrio, 2016). Lehenengo gatazkari dagokionez, instituzionalizazio autonomiko progresiboaren ondorioz gizarte zibilaren barnean ordura arte nagusi izandako egintza kolektiboaren jardun-esparruez jabetu ziren instituzio autonomiko berriak. Instituzio horiek garatutako politikak, -politika kulturalak eta linguistikoak, besteak beste-, baztertu egin zuen, apurka-apurka, herri ekimenen egintza kolektiboa. Euskararen berreskurapena gizarte zibilaren auzia, eta harena soilik, izatetik gobernu politiken erantzukizuna izatera igaro zen. Administrazio autonomikoak eskumen berriak jaso zituen heinean eta, horrekin batera, kulturaren esparruan modu legitimoan jarduteko quasi-monopolioa (legeen bidezko arautzeen bitartez eta finantza- eta giza-baliabideen kontrolaren bitartez), politikariek eta kudeatzaile profesionalek hartu zuten behinola aktibistek izandako protagonismoa.⁹ Administrazio autonomikoaren eta EMAREN arteko tentsioak modu askotan adierazi ziren (Odriozola Irizar eta Zabalo Bilbao, 2013). Alde batetik, instituzioen kudeatzaile berriek ildo jakin batean interpretatu zituzten mugimenduaren elkarteen ekimenak, alegia, sortzen ari zen ordena instituzionalaren haustura edo desegonkortzea lortzeko saio gisa. Hartara, botere autonomikoek estigmatizatu egin zituzten mugimenduaren jarduerak. Beste alde batetik, mugimenduaren erakundeek instituzioen aurkako jarrerak elikatu zituzten, baita

9 EAEn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak (1982) eta Nafarroan *Ley Foral del Vascuence* izeneko legeak (1986) osatzen dute hizkuntza esparruaren arautze prozesuaren lehen markoa Hego Euskal Herrian.

konfrontazio estrategiak bultzatu ere. Testuinguru honetan sortu ziren EHE, Euskal Herrian Euskaraz¹⁰, (1979) eta EKB, Euskal Kulturaren Batzarrea¹¹ (1983).

Bigarren gatazka ildoari dagokionez, euskal nazionalismoaren zatiketak desplazatu egin zuen ordura arteko liskar-gune nagusia. Horrela, lehenago kanpoko aurkari komunaren kontrako jarrera zena (alegia, espainiar estatuaren kontrakoa), euskal nazionalismoaren barrura lekualdatu zen instituzionalizazio autonomikoarekin batera eta, ondorioz, euskal hiztunen artera. Modu horretan, hautsi egin zen frankismoaren garaian euskarari buruz egondako adostasun formala, eta areagotu egin ziren nazionalismo kontserbadorearen eta ezkerreko nazionalismoaren arteko bat ez etortzeak. Jakina, euskal nazionalismoaren barne hausturak kolokan jarri zuen euskal nazioaren izaera komunitarioaren irudikapena eta nazio horren oinarritzat hartzen zen hiztunen taldearen batasuna. Lehendabizi, eredu autonomikoaren inguruko desadostasunak piztu ziren, ezkerreko nazionalismotik euskal lurralde historikoen banaketaren sortzaile jotzen zelako eredu politiko berria; bigarrenik, hizkuntza politiken ingurukoak, azken horiek Espainiako konstituziotik eratorritako marko juridikoak mugatzen zituela uste zuelako ezkerreko nazionalismoak. 80ko hamarkadako argitalpenetan eta elkarrizketaturiko informatzaileen diskurtsoetan jasotzen den bezala, EAEko instituzio autonomikoek garatutako politiken artean, elebitasuna xede zuten hizkuntza politikak gaitzetsi zituen gehien mugimenduak, baita lehenagotik herri ekimenez sortutako instituzioen bikoizketak ere (EAEko hezkuntza sare berrian eta euskara helduei irakasteko erakunde ofizialaren sorreran gauzatu zirenak, batik bat). Aldi berean, euskal gizarteko gaztelarazko hiztunen sektore batzuk ere hizkuntza politiken eta haien ezartze erritmoaren aurreko susmoak publikoki agertzen hasi ziren. Arrazoi desberdinak eta kontrajarritako interesak tartean zeudela, hizkuntzaren aktibismoan une horretara arte nagusi zen errei-bindikazio markoa, adostasun sozial handikoa lehenago, auzitan jarri zen fase autonomikoan (Larrinaga, 1996; 2007; Martinez de Luna, 2010). Aldi berean, gutxitu egin zen EMak frankismoaren garaitik metaturiko emoziozko kapitala eta euskararen aldeko atxikimendu afektiboa.

Horiek horrela, EMaren erakunde batzuk EAEko gobernuak bultzaturiko hizkuntza- eta kultura-politiken aurka agertu ziren protesta eta kritika zorrotzen bitartez, hertsatzaile jotzen zuten lege markoaren faktizitatearen adierazpentzat jotzen zituztelako. Modu paraleloan, instituzio autonomikoek ahalegin bizia egin zuten euskal kultura esparrua egintza kolektiboz eta herri ekimenez hustutzeko, eta, haien ordeztu, ekimen instituzionalak zilegiztatzeko. Ildo horretan, esan daiteke fase autonomikoaren

10 <http://euskalherrianeuskaraz.org/>

11 https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_Kulturaren_Batzarreak

abiaburuak sakoneko identitate krisia eragiten duela EMan. Haren barneko erakundeen zatiketa gero eta handiagoak, bai eta diskurtso aldaketak eta tokiko jardun guzuetara egindako birak izan ziren, besteak beste, haren barnean sortutako astinduaren seinaleak. Horrela, jadanik 80ko hamarkadan erakunde mota desberdinak hartzen ditu mugimenduak barnean. Lehenik, EHEren tankerakoak, alegia, aurreko zikloan nagusi izandako aktibismo aldarrikatzailearen ereduaren oinordeko direnak. Bigarrenik, EKB koordinakundea bezalako erakundeak, mugimenduaren aldi desberdinen arteko zubi funtzioa egin dutenak. Eta, azkenik, euskararen aldeko tokiko elkarteak, ziklo politiko berriari hobeto egokitutakoak. Mugimenduaren adierazpen despoltizatuagoak izatean, baliabide teknikoak eta kognitiboak hornituak eta, zati batean edo guztiz, funts publikoekin diruz lagunduak, elkarte horiek bilakatu ziren, epe ertainean, eraberritutako mugimenduaren muina.

Halaz ere, 80ko hamarkadan oraindino Euskal Herrian Euskaraz (EHE) erakundeak jarraitzen du modu paradigmaticoan ziklo honetako aktibismo politiko-kulturala irudikatzen. Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, kultura aktibista eta ideologo nazionalista bultzatzaileen artean zegoela 1979an sortua, EHEren idearioak ezin hobeki islatzen du aurreko ziklotik jarauntsitako hizkuntza nazionalismoaren ikuskera. Haren abiapuntuko goiburua da Euskal Herria ezin dela existitu euskararik gabe. Eraketa agerian bertan argi adierazten du erakundeak erreibindikazioa, aktibismoa eta salaketa dituela helburu, eta elkarrearen jarduera ez dela mugatzen esparru tekniko eta kulturalera. Aitzitik, bere izaera politikoa aitortzeaz gain, konfrontazio estrategia iragartzen du bertan. Auzi linguistikoa euskararen jazarpenaren logikan kokatzen du EHEk, eta xedetzat hartzen du euskal hiztunen eskubideen alde eta euskararen ofizialtasunaren alde borrokatzea. Ildo berean, euskal naziotzat hartzen diren lurralde guztietara zabaltzen du jarduera. Planteamendu horiei jarraiki, EHEk euskal hiztunentzako hizkuntza eskubiak eskatzeko manifestazio eta protestetan oinarritutako egintza eredu garatu zuen garai horretan, komunikazio alternatiboaren moldeak erabilita -afixa, graffiti, eranskailu eta pintaketak seinale publikoetan- eta, oro har, konfrontazio estrategiak bultzatuta gobernu nahiz administrazio publikoekin.

Haatik, EHEren estrategia hori lehen fase autonomikoan euskal gizartean gauzatutako desmobilizazio prozesuarekin batera dator denboran. Izan ere, instituzionalizazio prozesu orok ekarri ohi ditu berarekin desmobilizazioaren eta pribatizazio sozialaren aldeko joera indartsuak (Eisenstadt, 1972). Bestalde, EMaren zati baten jarduera apaltzearekin batera, mugimenduaren barne dibertsifikazioari eta haren profesionalizazio progresiboari ere ematen zaie hasiera une horretan. Handik aurrera mugimenduak sortzen eta garatzen dituen baliabideak ez dira dagoeneko mobilizaziora bideratuko bitartekoak edo bitarteko politikoak. Horien orde, euskalgintzak baliabide kognitiboak eta profesionalak lantzen ditu gero eta gehiago, askotariko esparru sozialetan hizkun-

tza plangintzak garatzera bideratuak. Hala, 90etik aurrera, ezagutza adituen ekoizpen gune bilakatzen da EMA. Hain zuzen ere, ezagutza gero eta espezializatuagoek elikatzen dituzte harrez geroztik mugimenduak egindako bira estrategikoak egoera sozial eta politiko berrian, eta laguntzen dute, eztabaida eta gogoeten bitartez, haren identitate berria eratzen. Metaketa kognitibo horretan mugarri dira lehen une batean BAT. *Soziolinguistika Aldizkaria*,¹² 1990tik aurrera argitaratua, eta, geroago, Soziolinguistika Klusterra,¹³ 2000. urtean sortua.

1990eko eta 2000ko argitalpenek erakusten duten bezala, esparru politikoaz izan beharreko autonomiari buruzko barne eztabaida sakonari hasiera ematen dio EMaren krisiak. Eztabaida horretan mugimenduaren zati batek adierazten du, abagune bakoitzeko estrategia politikoak gorabehera, hizkuntzak eta kulturak berezko zentraltasuna izan behar dutela, eta ikuspegi horri egokitutako bestelako diskurtso-markoa jorratu beharra dagoela. Horrela, arian-arian, bi marko kognitibo taxutzen dira EMaren barnean, gero eta bereiziagoak, euskararen aldeko egintza ulertzeko modu desberdinak dakartzatenak: bata, politikoagoa, hizkuntza botere harremani eta egintza politikoari ezinbestean lotuta aditzen duena eta, bestea, kulturalagoa eta gero eta kudeatzaileagoa, egintza linguistikoari esparru autonomoa esleitzearen aldekoa dena. Bi ikuskera horiek, jakina, hizkuntzaren aldeko aktibismoaren eta, hartara, instituzio politiko autonomikoeiko harremanen interpretazio desberdinak hartzen dituzte barnean. Lehenengo ereduan, harreman horiek gatazkaren eta konfrontazioaren logikan kokatzen dira. Bigarrenean, aldiz, adostasunean eta lankidetzan. Bi definizioak daude aldi berean eta biak lehia-tzen dira mugimenduan beren nagusitasuna ezartzeko (Larrinaga, 2007; Larrinaga eta Amurrio, 2016).

3. EUSKALGINTZAREN ESPARRU KOGNITIBOAREN BIRMOLDAKETA: MUGIMENDUAREN LAN INTELEKTUALA HIZTUNEN KOMUNITATEA IRUDIKATU

Elkarrizketaturiko informatzaileek mugarritzat jotzen dute Jose Maria Sanchez Carrion, *Txepetxek*, 1987an argitaratutako lana¹⁴ EMaren bilakaeran (Sanchez Carrion, 1987). Ekarpen horrek, zalantzarik gabe, eragin handia izan du mugimenduak 90eko eta 2000ko hamarkadetan izandako birmoldaketa kognitiboan. Euskara berreskuratzeko proposamen soziolinguistiko bat aurkezten duen Txepetxen liburua, berrikuntza modura jaso zen mugimenduaren barnean publikatu zen unean. Eman zitzaion garrantziaren erakusgarri dira *Jakin*¹⁵ aldizkarian hainbat soziolinguistak eta intelektualek egindako iruzkinak; horietan guztietan nabarmendu zen proposamenaren berritasuna

12 <http://www.soziolinguistika.org/bat>

13 <http://www.soziolinguistika.org>

14 “Un futuro para nuestro pasado” izenburua duen liburuaz ari gara (Sánchez Carrión, 1987).

15 Ikusi Jakin 42/43. <http://www.jakin.eus/aldizkaria/jakin-42-43--1987/117>

eta interesa. Ildo berean, mugimenduaren intelektualek ondoren egindako beste gogoeta batzuetan ere “diskurtso eta praktika berri” baten sorrera azpimarratzen zen (Muniozguren, 1992), “aro berria” (Amonarriz, 1993), eta “mugimendu berria” ere (Amonarriz eta Arruti, 1998) aipatzen ziren. Adierazpen horien bitartez, ziklo baten amaiera eta beste aldi baten hasiera iragartzeaz gain, adituek eta “mugimendu intelektualek” mugimenduaren identitatearen birformulazioan eta haren bira estrategikoan izandako eginkizun garrantzitsua aitortu zuen EMak, inplizituki.

Izan ere, Modernitate Berantiarraren egoeran ezagutza eta egintza, biak ala biak sortzen dira mugimendu sozialetan, haien barnean bat egiten baitute kulturaren logikak eta praktika politikoak (Melucci, 2001). Dominazioaren jarduna ezin denez dagoeneko gure aroan ezagutza legitimoaren erabilerarik gabe gauzatu (Bourdieu, 1997), dominazioaren aurkako erresistentziak ere era bereko baliabide kognitiboak erabili behar izaten ditu, nahitaez, aldaketa sozialera bideraturiko egintza kolektiboan (Epstein, 1996; Domenech, 2002). Hain zuzen ere, egintza kolektibo orotan ezagutzak daukan funtzio sortzailea azpimarratzeko asmoz, Eyerman eta Jamisonen “*cognitive praxis*” izeneko kontzeptua erabiltzen dute (Eyerman eta Jamison, 1991). Ezagutzaren kontzeptu hori ez da mugatzen jakintza zientifiko eta akademikora, zentzu hertsian hartuta; aldiz, aintzat hartzen du mugimendu orok, bere partaideen egintza jarraituaren bitartez, sortzen duen substratu kognitiboa, azken horrek uzten baitie errealitate sozialari buruzko zenbait ikusmolde partekatzen eta, horrela, identitate jakin bat eta interes batzuk eratzen. Bestalde, gaur egun mugimenduen barnean sortutako ezagutzak ez ditu beretzat aldarrikatzen lehenagoko ezagutza zientifikoaren ustezko objektibotasuna eta balio sozialen kutsadurarik eza. Aitzitik, epistemologia feministetan garatu den “ezagutza kokatua”¹⁶ eskuratu dute gaurko mugimenduek beren egintza bideratzeko, jakintza mota horretan ezagutzen duen subjektua zuzenean inplikaturik dagoelako, haren balio eta interesak tarteko, ezagutzeko jardunean, eta hartan eragiten duelako (Martinez, Casado eta Ibarra, 2012).

Era askotako ezagutza sortze horren ildoan hitz egin daiteke “mugimendu intelektualez” ere. Izan ere, intelektualaren rola askotariko inguru sozialetan hezurramitu daiteke. Egintza kolektiboan parte hartzen duten mugimenduetako intelektualek, hain zuzen, mugimendu soziala eraikitzen den aldi berean eraikitzen dute beren rola. Horrela, garatzen duten jarduera kulturalaren bitartez (argitalpenak, azterketak eta analisiak eginez, komunikazio eta prestakuntza proiektuak garatuz, eta abar) mugimenduaren identitate kognitiboa eta ezagutza interesak taxutzen laguntzen dute (Eyerman eta Jamison, 1991). Horrenbestez, ideologo klasikoen antzera, mugimenduetako gaur egungo intelektualek ere ezinbesteko funtzioak betetzen dituzte egintza kolektiboa orientatze aldera, besteak beste, esanguratsua den informazioa hautatu eta egituratzen

16 Kontzeptuaren sorrera aztertzeko, ikusi: Donna Haraway, 1995, *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Madrid, Cátedra).

dute, zentzuz eta molde jakin batez hornitzen dute borondate kolektiboa taldearen interesak argi definitzeko eta, azken batean, egintza indibiduala nahiz kolektiboa ulertzeko esanahi egitura bat landu eta ezagutarazten dute (Larrinaga, 2008). Bestalde, beren lan intelektualaren bitartez egintza kolektiborako beharrezkoa den ezagutza trinkotzeaz gain, eragile horiek mugimenduaren kideen eta jarraitzaileen trinkotze afektiboan ere laguntzen dute. Jeff Jasperrek gogoratzen duen bezala, gertatzen diren astinaldi sozialek emozio erreflexuak eragiten dituzte sarri gizarteko kideen artean, hala nola, beldurra, amorrua edo poza (Jasper, 1997), baina, gero, egintza kolektiboa ahalbidetuko duen lan intelektuala eta politikoa burutu behar izaten da, hasierako zirrara horietatik abiatuta emozio moral bat eraiki ahal izateko (Jasper, 1997; Larrinaga, 2017).

Intektualen kategoria askok hartu dezake parte mugimenduen egintzan. Den denek ez dute goi mailako figura kulturalak ez “ideologoak” izan behar, zentzu klasikoan. Aitzitik, bozeramailez, teknikariz eta adituz osaturiko mailaketa konplexua aurkitu dezakegu mugimenduen dinamikan, sarritan bitartekaritza zereginak egiten dituztenak, hala mugimenduan taxuturiko ikusmoldearen “itzulpenaz” eta dibulgazioaz arduratuta, nola ikusmolde horren araberrako egintza-moldaketa eta komunikazioa beren gain hartuta. Ildo horretan, gaur egungo EMA ezagutza espezializatuen garapena sustatu duen mugimendu mota bat da, baita, modu paraleloan, profesionalizazio maila handia lortutako ekimena ere. (Larrinaga, 2007; 2008; Larrinaga eta Amurrio, 2016).

Baina, profesional eta aditu multzo horren barruan eztabaidarik gabeko lidergo intelektuala irabazi duten figura nabarmenak ere gailentzen dira aldiro-aldiro. Ildo horretan, 60, 70 eta 80ko belaunaldien egintza kolektiborako Krutwigen edo Txillardegiren proposamenak erreferente intelektuala izan ziren bezalaxe, Txepetxek modu paradigmaticoan bereganatzen du EMan mugimendu intelektualaren rola 90eko eta 2000ko etapan. Lehenago adierazi den legez, frankismoaren garaiko euskal nazioaren ideologoen Europar eta munduan 60an sortzen ari ziren pentsamendu korronteak eta esperientzia politikoak erantsi zituzten beren planteamenduetan. Ildo berean, Txepetx ere gaur egungo kulturaren oihartzun sozial handia duten baliabide metaforikoez baliatzen da (aniztasuna, ekologia...) ¹⁷. Hala, aniztasun kultural eta linguistikoari aipamena eginez enmarkatzen du bere diskurtsoa, “hizkuntzen ekologiaren” ¹⁸ testuinguruan. Kontzeptu horiez gain, hizkuntzaren inguruko komunitatearen ideia ere berreskuratu eta aldarrikatzen du.

17 Adibidez, zenbaiten ustez, argudio ekologikoak justifikazio etikoa eskaintzen die hizkuntzari buruzko ikerketei (Erize, 2011).

18 Ildo horretan, Einar Haugen-ek formulaturiko “hizkuntzaren ekologiaren” kontzeptua jasotzen du Sanchez Carrionek bere lanean. (Ikusi Einar Haugen, 1972, *The Ecology of Language*, Stanford University Press). Hizkuntzaren ekologiaren ildoak euskal soziolinguistikan izandako eraginaren erakusgarri da, adibidez, BAT. Soziolinguistika Aldizkariak, 2011 urteko 81. zenbakian, gaiaren jorrraketari eskainitako ale monografikoa.

Txepetxen proposamen konplexuaren ikuspegi sinplista eskaintzeko arriskuan bada ere, euskararen berreskurapenari buruzko bi premisa nabarmenduko ditugu haren lanean, hain zuzen ere, EMak beren bira diskurtsiboan eta estrategikoan jasotako giltzarri direnak, gure ustetan. Lehenengo ideia da hizkuntza berreskurapenaren subjektua hiztunen komunitateak izan behar duela. Ideia horretatik ondorioztatzen du euskalgintzak hiztunen komunitatek berak hartu behar duela haren egintza kolektiboaren lidergoa. Bigarren ideiak, berriz, iradokitzen du euskararen aldeko egintzaren helburua ezin dela euskal hizkuntzaren aitortza izan, erabilera baizik. Eta erabilera eguneroko bizitzako esparru komunitarioetan gauzatzen denez, mugimenduak deliberatzen du esparru horietan jartzea arreta aurrerantzean.

Komunitatearen auziak kontzeptu giltzarria eskaintzen du Aro Modernoko lotura sozialen nolakotasuna ez ezik Modernitate Berantiarreko sozialitate esperimentazioak ere ulertu ahal izateko, gaur egungo mugimenduenak barne. Tönnies, Weber eta Durkheimen eskutik, besteak beste, soziologia klasikoak kontrajarri egin zituen komunitatea eta gizartea, batzuetan tipo ideal moduan ulertuta, eta beste batzuetan eredu historiko gisa erabilia (Alvaro, 2010), eta, ondorioz, komunitatetik gizarterako iraganbidetat jo zuen modernizazio prozesua. Hala, gizabanakoaren bizitzari zentzu bete ematen dioten oinarritzko lotura irmo ez osaturik irudikatzen dira interpretazio horretan gizarte tradizionalako komunitate harremanak, lehenago senitarlean, auzoan eta talde txikian gauzatzen zelako nonbait pertsonen bizitza hori. Harremanen trinkotasunak, hurbiltasunak eta haurridetasunak ezaugarritzen dituzte, beraz, komunitate-loturak; areago, afektuek eta segurtasunak ematen diete bizi arnasa harreman horiei. Aldiz, ikuspegi dualista horren arabera, gizarte kapitalista modernoaren garapenak arrazionaltasun instrumentalez kutsatu ditu pertsonen arteko harremanak, eta disolbatu egin ditu haien arteko behinolako lotura sozialak. Horixe da gizartearen kontzeptua “komunitate/gizarte” dialektikan, hain zuzen ere, dinamika indibidualizatzailea bultzatu duen pertsonen arteko harreman-eredu bihozgabea.

Halaz ere, ez bakarrik galdutako iraganarekin baita oraingo errealitate soziala aldatzeko aukerekin ere identifikatzen da gero eta gehiago komunitatearen kontzeptua Modernitate Berantiarrean (de Marinis, 2010; Sasín, 2010). Izan ere, gizarte modernoan nagusitu diren ziurgabetasunak, behin-behinekotasunak eta zentzuaren galerak komunitate itxurako lotura soziala birsortzeko ahaleginak piztu ohi dituzte pertsona eta talde askoren artean. Zygmunt Baumanek adierazten duenez, kapitalismo modernoaren nahi gabeko ondorio gisa hartu behar da komunitate nahia iratzarri izana gure gizarteetan (Bauman, 2006). Hala, gaur egun aldaketa sozialera bideraturiko mugimenduen egintza kolektiboek ere behin eta berriro jotzen dute komunitate proiektuak (ber)eraikitzen, egintza horiek pertsonen arteko elkertasunezko integrazioa behar izaten dutelako, leialtasuna, batasuna eta kohesio komunitarioaren bestelako bertuteak bila-

tzen dituztelako eta, azken batean, ideiak eta kidetza-sentimenduak partekatuko dituzten pertsonen arteko sozialitate-eredu berriak eratu nahi izaten dituztelako.

Komunitatearen kontzeptu zentral horretatik abiatuta, Txepetxen planteamenduak egoera sozio-politiko berriari moldatutako interpretazio markoa lantzeko aukera eskaintzen dio euskararen aldeko mugimenduari 90etik aurrera, euskal hiztunen talde elkartasuna eta taldearekiko atxikimendu afektiboa EMaren balio nagusi gisa aldarrikatuta. Interpretazio berriaren arabera EMaren egintzaren lehentasuna euskal hiztunen komunitatea berriz ere batzea eta trinkotzea denez, bigarren mailara baztertzen dira eskabide politikoak eta administrazio autonomikoei buruzko konfrontazio estrategiak, estrategia horiek barne zatiketa eta paralisia sortu zituztela interpretatzen delako mugimenduaren barnean. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED)¹⁹ elkartearen esperientzia arrakastatsuari jarraiki, 90eko hamarkadan mugimenduaren zati handi batek tokiko elkarteetan sorreran jartzen ditu ahaleginak.

Ondorioz, 90etik aurrera ikusten da gora egin zuela herrietako hiztun komunitateak antolatzea eta hari zerbitzuak eskaintzera bideraturiko elkarteetan kopuruak. Ekimena, egoera soziolinguistikoa alde zuten guneetan gauzatu zen batik bat, hau da, oso handiak izan barik euskal hiztunen kopuru esanguratsua zeukaten herrietan. Hain zuzen ere, gune horietako sozialitate-sareak ez ziren anonimoegiak, eta bai, ordea, komunitarioak edo erdi komunitarioak. Baldintza soziolinguistiko horiek Bizkaiko eta Gipuzkoako erdi mailako udalerrietan betetzen ziren, bereziki. Bestalde, garai horretako elkarteetan sorrera uneak bat egin zuen tokiko administrazioetako euskara teknikarien agerpenarekin. Izan ere, eratzen ari ziren udal administrazioetan, teknikari horiek hartu zuten udalerrietako plangintza linguistikoen ardura. Behin baino gehiagotan, zerbitzu teknikoek beraiek ahalbidetu zuten euskara elkarteetan sorrera, beren planifikazio lanaren laguntzarako egitura gisa. Horrela, aurreko etapan nagusi izan zen protestarako egintza politiko gatazkatsuen ordez, elkarlanera bideraturiko egintza kolektiboa gailentzen hasi zen EMan apurka-apurka, tokiko gobernuek sustatutako hizkuntza plangintzak gauzatze aldera.

Jakina, bira hori mugimenduaren beraren despolitizazio erlatiboaren bitartez baino ezin izan zen mamitu. Horrela, organikoki ez, baina bai sinbolikoki eta identitatez, mugimenduak euskal unibertso nazionalistarekin zeuzkan loturen disoluzio diskurtsiboarekin batera burutu zen aldaketa (Larrinaga, 1996; Abad, Cerrato, Gatti, Martinez de Albeniz, Perez-Agote eta Tejerina, 1999; Larrinaga eta Amurrio, 2016). Egiazki, hizkuntzaren aldeko mugimenduen eta mugimendu nazionalisten arteko tentsioak ez dira ezohiko gertakariak. Fishmanek azpimarratu zuenaren ildotik, hizkuntza mugimenduak izaera etnikoa edo nazionalista daukaten beste mugimendu zabalago batzuen abaroan azaldu ohi dira gehienetan. Halaz ere, mugimendu mota bien interesak

¹⁹ Arrasateko herrian 1983an sortutako euskararen aldeko elkartea. <http://www.aedelkar-tea.com/>

eta estrategiak ez dira beti bat etortzen eta, sarritan, gatazkak pizten dira haien artean. Hortaz, saihestu egin behar da, haren ustetan, egintza kolektibo linguistikoa eta indar nazionalisten egintza politikoa modu mekanikoan identifikatzeko tentazioa (Fishman, 1989; Harguindeguy eta Pasquier, 2010).

Garaiko euskararen aldeko mugimenduaren kideen hitzetan, euskarak bilgune izan behar zuen eta, horretarako, hizkuntzari buruzko adostasunak eraiki behar ziren ideologia politikoen eta alderdi hautuen gainera. Nabarienez, interpretazio horrek beste esanahi bat ematen dio “auzi linguistikoari”, hura marko ez politiko batean kokatzeko asmoz, nahiz eta mugimenduak ez duen osotasunean hori lortzen. Horrenbestez, diskurtso berriak zalantzan jartzen du aurreko garaitik zetorren euskal nazioaren eta euskararen arteko harremanari buruzko definizio historikoa, autonomia kulturalaren izenean: euskarak hiztun guztien ondare behar zuen izan, edozein zela hiztun horien izaera eta nortasun politikoa. Ildo horretan, autonomiaren auzia eztabaidagai bilakatzeko da mugimenduaren barnean 90eko eta 2000ko hamarkadetan.²⁰

Zatiketa politikoen gainera lortu beharreko euskal hiztunen kohesioaz gain, beste funtsezko proposamen bat ere agertzen da Txepetxen proposamenean, hain zuzen ere, hiztun indibidualaren kontzientzia hartzearen garrantzia. Mugimenduaren ordura arteko diskurtso-marko hegemonikoan, izaera makro-soziala zuten egiturazko faktore objektiboak esleitu zitzaizkien hizkuntzaren egoeraren ardura (testuinguru juridikoaren murrizketak, hizkuntzaren ofizialtasun eza, hizkuntza politiken gabeziak eremu sozial formalean), eta euskarak euskal nazioaren identitate ikur moduan zeukan ahalmena nabarmendu zen. Interpretazio berriak, ordea, esparru subjektibora ere higitzen du erantzukizun hori. Gizarte indibidualizatu baten logikarekin bat eginda, hiztunaren kontzientzia eta motibazioa dira oraingo interpretazio horretan EMaren arreta gunea hizkuntza aldaketarako. Bestalde, mugimenduak bereganatzen duen diskurtsoak onartzen ditu hiztunaren motibaziozko estimuluak ezinbestekoak dituen inplikazio kognitiboak eta emoziozkoak, hizkuntza praktika garatu dadin (Larrinaga, 2017). Izan ere, gutxitutako hizkuntzaren kasuan, egoera soziala ez dago hiztunaren alde eta, beste hiztunekin partekaturiko kontsonantzia afektiborik egon ezean, truke linguistikoa hizkuntza nagusiaren alde egiten du hizkuntza gutxituaren alde baino maiztasun handiagoarekin.

Planteamendu horien guztien ondorioz, mugimenduaren interpretazio markoaren birak alderdi asko dituen metamorfosia eragiten du. EMaren egintzaren-tzat ordura arte lehentasunezkoa zen eskala sozialak eta egintzaren beraren esanahiak, esaterako, astinduak jasotzen dituzte. Izan ere, mugimenduaren erakunde askok hobe-tsitako egintzarako gunea Euskal Herritik tokiko agertokira lekualdatzen da eta, hein berean, lehenago gune makro-sozialean mamituriko egintza nabarmenki politikoa,

20 Joxe Manuel Odriozolaren *Euskalgintzaren Lekukoak* izenburuko lanean modu oso adierazgarrian jasota daude eztabaida horietako batzuk (Odriozola, 2004).

orain eguneroko bizitzako esparruetan garatutako egintza nagusiki kulturala (baita teknikoa ere) izatera igarotzen da. Ildo berean, norabide aldaketak elkarlana aldarrikatzen du konfrontazioaren orde edo, okerreanean ere, botere autonomikoari buruz eraso zuzenik gabeko jarrera izatea.

Bestalde, esparru linguistikoa bera hertsiki hartuta, mugimenduaren arreta fokua hizkuntzaren corpusetik estatusera higitzen da, eta ezagutzatik benetako erabilerara. Ondorioz, aldatu egiten da konpromisoari eta aktibismoari esleitzen zaien adiera ere. Mugimenduak ez du dagoeneko nahikotzat jotzen aurreko garaian hain garrantzi politiko handia izan zuen euskarari buruzko atxikimendu sinbolikoa. Aitzitik, eguneroko bizitzako komunikazio trukeetan hiztunak gauzatzen duen praktika linguistikoaren balioa nabarmentzen du. Ondorioz, hein handi batean, erabileraren esparruetan gauzatu beharreko interbentzioen plangintza egitera bideratzen da aurrerantzean EMaren egintza kolektiboa, eta hiztunak bizitza garatzen duen mikro-gune sozialetan egiten du ahalegina: bizilekuan, auzoan, herrian, aisialdi gunean edo lan tokian, besteak beste. Linguistikoki gauzatzen diren hiztunaren eguneroko jarduerak daude orain egintza kolektiboaren ikusmiran; senide eta lagunekin mamitzen direnak, kirolean, erosketetan eta hedabideen kontsumoan erakusten direnak. Eguneroko bizitzako mikro-espazio komunitario horiek konkistatzea eta, ahalezko hiztunaren konplizitatea eta motibazioa tarteko, hizkuntzazko egintza txikiak arau linguistiko nagusiaren subertsio bilakatzea, horiek dira 90eko urteetatik aurrera mugimenduak nagusiki lantzen dituen ildoak.

4. HIZTUNEN KOMUNITATEAREN ERAIKUNTZA-SAIOAK EGUNEROKO BIZITZAKO LABORATEGI SOZIALEAN

Bizitza sozialeko eguneroko praktikak gauzatu ahal izateko pertsonak ezagutza multzo bat izan ohi dutela eskura erakutsi digute eguneroko bizitzari buruzko azterketa soziologiko klasikoek. Ezagutza arrunten ondare hori kultura jakin bateko zentzu komunean oinarrituta egoten da, eta egintzarako “errezetak” eskaintzen dizkie kultura bera partekatzen dutenei (Adler, Adler eta Fontana, 1987; Shutz, 1993; Berger eta Luckmann, 1986). Ondorioz, ikuspegi klasiko horiek birsorkuntza sozialaren esparru gisa irudikatu dute eguneroko bizitzako mundu intersubjektiboa. Izan ere, ezagutza arruntak modu aurre-erreflexiboan jarduten uzten die pertsonari, aurrean dauzkaten egoera sozialak etengabe problema bihurtu gabe eta, hartara, egoera horietan automatikoki egiten dutena inoiz auzitan jarri gabe.

Azken hamarkadetan, ordea, egintza kolektiboari buruzko proposamen teoriko berriak agertu diren heinean, bestelako ikuspegiak garatu dira aldaketa sozialaz. Ildo horretan, gizartearen egiturazko uneetan ez ezik eguneroko bizitzako interakziozko esparruetan ere gauzatu daitekeela aldaketa soziala adierazten dute proposamen teoriko horiek. Mugimendu berrien hainbat teoriarik diotenez, gaur egungo gizarte konplexuetan botereak dagoeneko ez du ezartzen bere kontrola sistema produktiboan eta

sistema politikoan soilik. Aitzitik, haren parte hartzea handia da harreman sozialetan, sistema sinbolikoetan eta identitate indibidual nahiz kolektiboetan ere. Horren ondorioz, gatazkek gainditu egin dute esparru ekonomikoaren behinolako gune nagusia, eta konfliktuak zabaldu egin dira gune kulturalera; hain zuzen ere, gatazkek gaur egun identitate pertsonala eta kolektiboa hartzen dituzte mendean, eguneroko bizitzako espazioak eta denborak, baita egintzaren motibazioak ere. Egoera horretan, agentziak hartzen du eraldaketaren protagonismoa. Eta gatazka mota berrien aurrean, berrikuntza kulturala esperimendu eta berrikuntza hori praktikan jartzen duten pertsona multzoak sortzen dira, eredu sozial dominanteak auzitan jarri eta kultura kode eraberrituak sortzen dihardutenak (Melucci, 1999). Hori dela eta, berrikuntzak esperimendatzeko laborategi sozial bilakatu da eguneroko bizitza. Non eta eguneroko bizitzako esperientzietan txertatzen diren pertsonen praktika sozial berritzaileak bestelako identitateak eraikitzea inplikatzeko pertsona horientzat, eta gertaera sozialak zentzu berriekin ulertzea. Prozesu kultural horietan indarrez eragiten dute bizitza intersubjektiboko osagai emozionalek ere, bai indibidualek bai kolektiboek.

Ikuspegi horretan, mugimenduetako praktika berritzaileak eguneroko bizitzako esperientzietan txertatzen dira. Hala, mugimendu sozialek bultzatu dituzten eraldaketa sozialerako proiektuek ez dute eredu sozialaren aldaketa botere politikoa hartzearekin edo gobernu politikak garatzearekin lotzen, edo ez prozesu horiekin soil-soilik. Alderantziz, pertsonak eguneroko bizitzan subordinatzen dituzten praktika pertsonal nahiz kolektiboetan zentratzen da gero eta gehiago emantzipazio-lana. Izan ere, mugimenduek aldarrikatutako eraldaketa askatzailea orainaldian gauzatzen diren praktiketan hasten da eta ez ustezko etorkizunean burutuko den egiturazko aldaketan (Martinez, Casado eta Ibarra, 2012).

Testuinguru horretan ulertu behar da EMaren barruan azken urteetan bultzatu den ildoetako bat. Erakunde-multzo konplexuak osatu du azken urteotan mugimendua, eta, jakina, erakunde horien helburuak eta estrategiak askotarikoak izan dira. Baina, modu eta adierazpen desberdinekin izan bada ere, euskal hiztunek eguneroko bizitzan mamitzen dituzten hizkuntza-praktikak eraldatzera bideraturik egon dira erakunde horietako askoren egintzak. Zehatz esanda, etengabe erdaren (espainieraren nahiz frantsesaren) alde egiten duen arau linguistiko dominantea azpikoz gora jartzera zuzendutako egintza mota bat izan da nagusiki euskalgintzak lehenetsikoa 90eko hamarkadaz geroztik.

Arau linguistikoa, beste arau sozial gehienak bezala, ez dago inon idatzita, baina horrek ez dio eraginkortasunik kentzen. Truke linguistikoa non, han agertzen da indar handiz hiztunen arteko eguneroko interakzioa arautzen, hizkuntzen arteko ukipe-na dagoen egoera sozial orotan. Arauak barnean hartzen ditu bai hizkuntzen kategorizazio hierarkikoa, bai kategoria horiei dagozkien emozioak ere, lotsa eta konfiantza eza, sarri, hizkuntza gutxituaren kasuan. Denbora luzean jarraitua izan den sozializazio

ez-formal, lauso eta egunerokoaren bitartez euskal hiztunek barneratu dituzten pres-tasun inkontzienteetan hezurmamituta agertzen denez araua, EMaren eginkizunetako bat izan da euskal hiztunei erakustea arau horren izaera arbitrarioa, eta haren aurkako praktikak bultzatzea. Euskal hiztuna eguneroko egintza eraldatzailean inplikatzek, ja-kina, arau nagusiak ezarritako ezagutzazko eta emoziozko osagaien subertsioa eskatzen du, besteak beste, hizkuntza subordinatuaren erabilerari buruzko emozio positiboak sorraraztea.

90eko eta 2000ko hamarkadetan Euskal Herriko tamaina erdi eta txikiko hainbat herritan sortutako tokiko euskara elkarteek adierazten dute modurik argie-nean euskal hiztunen komunitatea eraiki eta trinkotzeko ahalegina, hiztun arruntak gorago aipatu den eguneroko egintza kontziente eta eraldatzailean inplikatzeko as-moarekin. Elkarteen zeregina izan da tokian tokiko hiztun kontzientziatuenen taldea trinkotzea, komunitate izaeraren ildotik, eta haien egintza kolektiboaren bitartez hiz-kuntzari buruzko sentiberatasun gutxien duten hiztunen motibazioa piztea. Modu horretan, hizkuntzarentzako “bizi esparruak” sortu nahi izan dira eguneroko bizitzan, hain zuzen ere, hezkuntzan eta administrazioan zentratutako hizkuntza-politikek era-gin motela duten gizarteko esparru ez-formalenetan. Zeregin hori berenganatzean, hein batean, hizkuntza-dominazioaren desnaturalizaziorako tresna bilakatu dira eus-kara elkarteak. Izan ere, egoera aurre-erreflexibotik egintza erreflexibora eraman nahi izan dituzte euskal hiztun arruntaren egintzak. Bourdieuren hizkeran adierazita, hiz-kuntzen esparruan ondasun sinbolikoen ekonomia doitzen duten arauak utzi dituzte agerian (hizkuntza bakoitzari esleitutako balioa, besteak beste) eta, horrela, hizkuntza-arau nagusiak erantsita daukan biolentzia sinbolikoa nabarmendu (Bourdieu, 1991).

Herri elkarteek erakutsi nahi izan dute hizkuntzaren etorkizuna ez dagoela soilik instituzio politikoetan egindako plangintzetan edo hartutako erabakietan. Aitzitik, hiz-kuntzaren iraupena linguistikoki adierazten den egintza sozial orotan hezurmamitzen dela azaldu dute, eta, beraz, hiztunaren gaitasunaren eta borondatearen mende dagoela. Hiztunek gaitasun hori gauzatu ahal izateko, baina, elkarteek hiztun indibidualen ar-teko lotura multzoa eratu behar izan dute euskara gutxiturik dagoen gune sozialetan, alegia, gutxieneko harreman-bilbe komunitario bat bermatu behar izan dute, zoru hori hizkuntza-egintzen oinarri izan dadin. Bestalde, euskara elkarteek proposaturiko jabe-tze kolektiboa banakako hiztunaren emantzipazio prozesua ere bada, beren hizkuntza ohiturez ohartzea eta ohiturok nahita zuzentzea planteatzen baitzaio hiztun horri. Ildo horretan, euskara elkarteen garatze aldian (90eko eta 2000ko hamarkadetan) EMan na-gusi den marko kognitiboak argi azpimarratzen du ez dela nahikoa euskararen ezagutza, ezagutza hori ez bada gero mamitzen benetako erabileran. Xehetasun hori ez da hu-

tsala, inondik ere. Izan ere, azken urteetan egin diren inkesta soziolinguistikoek²¹, baita euskararen kale erabilera neurtzeko burututako azterketek ere (Altuna, Iurrebaso, Isasi, Martinez de Luna, Ramos, eta Uranga, 2012; Iurrebaso, 2012; Altuna Zumeta, 2016), behin eta berriro egiaztatu dute ezagutzaren eta erabileraren arteko etena dagoela, eta agerian jarri dute, dagoeneko badaudela egon belaunaldi batzuk, ume eta gazteenak bereziki, euskara eskola esparruan ikasi ondoren beren eguneroko bizitzan erabiltzen ez dutenak (Martinez de Luna, 2013).

Komunitatearen beharraren inguruko ideia horiek aintzat harturik, tokiko elkar- teek herrietako eragile euskaldun indibidualen nahiz kolektiboen borondatezko atxiki- mendua lortzeko estrategia jarri zuten abian 90eko hamarkadatik aurrera. Lehendabizi, euskal hiztun kontzientziatuenen atxikimendua bilatu zuten, alegia, herriko edo auzoko bizi-esparruan ikusgaitasuna eta eragina zeukaten pertsonena. Gero, hiztun arruntena. Beti ere, herrietan zegoen aniztasun politikoari nahiz dibertsitate sozialari begirunea izanik. Hasierako atxikimendu horien publizitatea eginez, herrietako bizitzan egon ohi diren entitate eta elkarte-sareak erakartzeko kanpainak eta proiektuak garatu zituzten: kirol, kultura nahiz aisialdiko elkarteak, gazteen taldeak, sozietate gastronomikoak, denda, taberna, jatetxe eta enpresak. Denak gonbidatzen zituzten euskararen erabileran inplikatzera borondatezko hitzarmenen bitartez.

Hain justu, publikoki iragarritako akordio horiek hiztunen komunitatearen eta haren sozialitate sareen etengabeko (ber)eraikuntza irudikatzea eta hura hiztunen ar- tean ikusgarri egitea ahalbidetu dute geroztik familiaren, lagunen eta auzokideen egu- neroko bizitzan. Hizkuntza harremanaz harago, sare horien guztien bitartez tokiko komunitate afektiboaren adarkadura sinbolikoak irudikatu nahi izan dituzte elkar- teek. Bestela adierazita, lotura linguistikoaren inguruan ehundutako txerazko eta boronda- tezko elkartasuna erakutsi nahi izan dute esparru publikoan. Batik bat arlo jakin ba- tzuetan arreta jarrita jardun dute elkar- teek bilbapen lan horretan: lehenengo, eta aipa- tu bezala, herri eta auzoetako entitateekin euskara sustatzeko egindako akordioetan; bigarrenik, haur eta gazteei zuzendutako programa eta zerbitzuetan (eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera kulturalak eta aisialdikoak); hirugarrenik, euskara ikasten ari di- renei hitz egiten laguntzeko proiektuetan; eta, azkenik, tokiko hedabideak garatzeko egitasmoetan -gehienetan tokiko edo eskualdeko aldizkarietan eta, zenbaitetan, tokiko teledibistetan-.

Zalantzarik gabe, elkar- teen antolaketa-egitura eta egintzarako ahalmena insti- tuzionalizatu egin dira denbora igaro ahala. 1996tik aurrera, adibidez, Euskaltzaleen

21 Adibidez, V. eta VI. Inkesta Soziolinguistikoek. Ikusi: Eusko Jaurlaritza (2013): V. Inkesta Soziolinguistikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.Inkesta.pdf eta Eusko Jaurlaritza (2016): V. Inkesta Soziolinguistikoa (aurkezpen publikoa) https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EAE.pdf?1476439692

Topagunea²² izeneko egitura sortu zen, une hartan 96 elkartek eta 42 herri-hedabidek osaturiko federazioa. Zentralizatuagoa eta profesionalizatuagoa izatean, antolakuntza eredu horrek herriei zuzendutako zerbitzu komunak eskaintza ahalbidetu izan du, esaterako, kultura zerbitzuak, ezarritako zirkuitu jakin batzuen bitartez. Jadanik 2005 urtean 305 jarduera garatu ziren, 85 herritan eta 95 kultura-gunetan eskaini zirenak, eta 22.000 ikusle baino gehiago izan zutenak. Topaguneak euskarazko komunikazio gune bat sortzeko proiektua ere garatu izan du. Horrenbestez, garrantzi estrategiko handia eskaini die hedabideen sorkuntzari. Tokikom proiektua da horren erakusgarri: 5 irrati, 2 tokiko telebista eta idatzizko 34 argitalpen, 160.000 ale baino gehiagoko argitaraldirekin, daude proiektu horren oinarrian.²³

Proiektu mediatikoek argi erakusten dute zein neurritan zabaldu den EMaren erakunde batzuen egintza hasierako familia-, auzo- eta komunitate-esparruetatik gainerako arlo sozial formalagoetara, eta nola gainditu duten mugimenduaren proiektuok tokikotasunaren esparrua maila globalera bideratzeraino (Mendizabal Altuna, 2016). Egitasmo horiek abian jartzeak desafio berriak ekarri ditu mugimenduarentzat, bai organizazio formal handien konplexutasunaren kudeaketarekin lotutakoak, baita enpresa proiektuen diseinu, garapen eta finantzazioarekin lotutakoak ere. Besteak beste, EMaren erakundeek proiektu mediatikoetan eta enpresen eta bestelako entitateen euskalduntzean hartutako ardurak areagotu egin du mugimenduak egindako jardueraren etengabeko espezializazioa eta teknifikazioa. Aldi berean, mugimenduaren organizazioen partaide diren langileen profesionalizazioa bultzatu du.

5. HIZTUNENEN KOMUNITATEAREN ERAIKUNTZA-SAIOAREN DILEMAK: EUSKALGINTZA PROFESIONALA ETA HERRI PARTAIDETZA

Egiazki, aldaketa kualitatiboa gertatu da mugimenduaren interbentzio egitasmoak komunitate esparruetatik lanaren eta enpresaren esparru formalagoetara igarotzean. Lanaren mundua euskalduntzeko proiektuek eta euskarazko komunikazio esparrua sortzeko eginkizunek indartu egin dute auzo eta herrietan jadanik hasita zegoen EMaren profesionalizazio eta teknifikazio progresiboa. Era berean, sorkuntza kognitiboaren itzelezko hazkundera eragin dute, interbentzio egitasmoetara eta organizazio berrikuntzari lotutako ingeniari-tza linguistikora bideratutako jakintza espezifikoaren premiaren ondorioz. Baina, mugimenduak bere historian zehar metaturiko kapital emozionalaren hozte erlatiboa ere ekarri du profesionalizazioak. Izan ere, erretorika teknikora eta eraginkortasunezkoa makurtu dira arian-arian mugimenduaren diskurtsoa eta egintza bera. Eta, modu paraleloan, apaldu egin da hizkuntzaren atxikimendu afektiboari lotutako jardue-

22 <http://topagunea.eus/>

23 <https://tokikom.eus/>

ra eredia, antolakuntzazko esparru burokratikoetan garatutako egintza profesionalizatuaren mesedetan.

Hain zuzen ere, azken urteetan ugaritu egin da mugimenduaren egintza lan munduko organizazio formaletan (Marko Juanikorena, 2000; 2010). Ondorioz, mugimenduaren erakunde batzuek enpresa kudeaketaren eta gerentzialisismoaren berezko diskurtsoak berenganatu dituzte, baita lan esparru horietatik datozen estrategiak barnean hartu ere beren egintzetan. Jacqueline Urlak adierazten duen moduan, (Urla, 2012), EMaren egitasmo estrategikoak lantzeko beharrianak –horrek dakarren guztiarekin: helburuak zehaztea, eragin nahi diren organizazioen indar-guneak eta ahulguneak identifikatzea, eta abar-, ezinbestean ekarri dute kudeaketari, auto-ebaluazioari eta erabateko kalitateari lotutako metodologiak abian jartzeko premia. Ildo berean, mugimenduaren erakunde batzuek enpresaren moldeak hartu dituzte, aholkularitza pribatuaren nahiz hizkuntza zerbitzuetara bideratutako kooperatibaren formatua berenganatuta; horiek guztiek hizkuntza egitasmoak diseinatzeko eta egikaritzeko prestazio teknikoak eskaintzen dituzte merkatuan. Horrela, pixkanaka, enpresa erakundeen eta merkatuaren logikak eragina izan du EMaren zati handi baten jardueran, eta mugimendua enpresagintzaren eta kooperatibagintzaren tradizioan ere kokatzen joan da.

EMaren izaera gero eta espezializatuagoa beste zenbait arlotan ere adierazi da. Horrela, eginkizunei eman nahi izan dien tankera teknikoak eta eraginkortasun profesionalak isla instituzionala izan dute koordinaziorako erabilitako organizazio-molde berrietan, baita abian jarritako proiektuetan ere. Esate baterako, 1990etik aurrerako EMaren instituzionalizazio prozesu orokorraren barruan kokatzen da Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua²⁴ (Juaristi, 2017), 1997an sortua, euskararen aldeko mugimenduaren organizazio-azpiegiturarik garrantzitsuenetakoa, bai haren barruan parte hartzen duen erakundearen kopuruagatik, bai mugitzen duen baliabideen zenbatekoagatik (2000. urteko datuen arabera, une horretan jadanik 60 entitate biltzen zituen, 8.000tik gora langilerekin eta 150.000 bazkiderekin). Ildo horretan, mugimenduaren azken aldiko instituzionalizazio mailaren erakusgarri da, euskalgintzaren erakundearen artean adierazpenik burokratikoena, seguru asko. Kontseiluaren helburuen artean, EMan parte hartzen duten eragileen kohesioa eta koordinazioa egon dira, eta askotariko eragile sozialen inplikazioa lortzea hizkuntzaren normalizazioan (Mendiguren eta Iñigo, 2006). Kudeaketa metodo berriek ezarritako kalitate agirien logikari jarraiki, *Kontseiluak* “Bai Euskarari” ziurtagiria sortu zuen. Harrez gero, hizkuntza normalizazioari bideraturiko egitasmoak abian jarritako hainbat erakunde sozialek eta enpresek jaso dute agiria. Modu horretan, enpresen eta erakundearen kalitatearen ohiko kontzeptuaren barnean hizkuntzaren osagaia ere txertatu da euskal gizartean.

24 <http://kontseilua.eus/>

Ikusten denez, iraupen luzeko mugimenduetan ohikoa den instituzionalizazio gero eta handiagoa burutu da EMaren barnean²⁵. Instituzionalizazio progresibo horrekin batera, ahuldu egin da jendearen parte hartze zabala eta desaktibatua egin dira garai bateko aktibismoaren ereduak. Era berean, gero eta zailagoa da mugimenduaren komunitate asmoak mantentzea. Halaz ere, deskribatu den EMaren bira estrategiko eta teknikoak ezin du mugimenduaren osotasuna islatu, haren egintza agendetatik ez baitira aldarrikapena eta partaidetza zabalerako deia guztiz baztertu. Gainera, aldarrikapena ez da eskuarki protesta aitzineratu duten erakundeen aldetik soilik etorri. Kontseiluak berak, profil teknikoa duen arren, Hizkuntz Eskubideen Behatokia²⁶ oso aktiboa mantentzen du 2001etik eta, presio talde gisa, hiztunen eskubideen urraketak salatu eta udalen hizkuntza politikak ikuskatzen ditu.

EMaren bira teknikoarekin batera ez zaie uko egin mugimenduaren dinamika-oren osagai afektiboenei ere. Bizirik dirau oraindik mugimendu-jarraitzaileen identitate kolektiboari eta partaidetza aktibistari emandako garrantzia, baita hiztunen komunitatearentzat aldarrikatutako elkartasun lotura ere. Baina, egia da osagai horiek moteldu egin direla, nabarmen. Hala, mugimenduaren erakundeek definituriko “bidegabeberia markoa” euskal hiztunen nukleo jakin batean indarrean mantentzen den heinean irauten dute herri partaidetzari egindako deiak eta emoziozko elkartasunari lotutako eskabideak. Hain zuzen ere, injustiziaren pertzepzio horrek elikatzen du aldian-aldian administrazio publikoei zuzendutako eskariaren agenda eta ahalbidetzen du, haserrea eta irain sentimenduak tarteko, egintza kolektiboa mantentzeko gutxieneko tentsio emozionalaren jarraipena.

Horiek horrela, EMaren garapenak egintza molde desberdinen arteko tentsioa ekarri du. Batetik, mugimenduaren erakunde batzuen lan profesionalizatua, profesional eta teknikoek burututakoa; bestetik, mugimendu batek mugimendu izaten jarraitzeko beharrezkoak dituen gutxieneko partaidetza-molde inklusiboagoak. Hain justu, EMA bezalako mugimendu instituzionalizatu baten erronka handienetarikoa da egintza kolektiboetan parte hartzeko motibazioa eta atxikimendua sorraraziko duen emoziozko energia mantentzea, testuinguru kultural eta linguistikoki anitzean euskal hiztunen komunitatearen barne elkartasuna indartzea, eta hiztunei harrotasun sentimendua helaraztea, sentimendu hori hizkuntza praktika bilaka dadin haien eguneroko bizitzan (Larrinaga, 2017). Horretarako, lan profesionalizatua nahikoa ez eta partaidetza-geretakariak bultzatu behar ditu mugimenduak.

25 Instituzionalizazioaren mailarik gorena, *Euskaldunon Egunkariaren* eta, gero, Berria egunkariaren komunikazio proiektuetan aurkituko genuke, izan duten tamaina eta eragin sozialagatik, baita euskarazko produkzioaren inguruan sortu diren gainerako kultura industrietan ere (horietako batzuk Martin Ugalde parkean bildutakoak).

26 <http://behatokia.eus/>

Ildo horretan, partaidetza zabala duten mobilizazio kolektiboak ere bultzatzen ditu EMak. Izan ere, euskararen egoeraren behin-behinekotasunaren pertzepzioa aski barneratuta dago oraindik jende askoren artean, eta hautemate hori indartu egiten da euskal hiztunek sarri aurkitzen dituzten lege- nahiz gizarte-murrizketen ondorioz. Halaz ere, aurrera egin arren, mugimenduaren mobilizazioek erritualaren itxura hartu dute gero eta gehiago, hau da, egutegian aurreikusitako deialdiei erantzunez modu aski arautuan gauzatzen diren ekitaldiak izan ohi dira. Horrela, zenbait erritualek jendetzaren atxikimendu masiboa jasotzen dute gaur egun ere eta, organizazio formalez harago, jardunean dagoen egintza kolektibo gisa irudikatzen uzten dute mugimendua. Erritual orok eskatzen duen legez, egintza erritualizatuak maiztasun jakin batekin burutzen dira, aldarrikapena eta jaia uztartzen dituzte egintza kolektibo berean, eta jendetzak erakaritzen dituzte esparru publikoan. Korrika eta urtero egiten diren Ikastolen jaialdiak mota horretako jarduerarik esanguratsuenak dira gaur gaurkoz eta, horiekin batera, bertsolaritzaren esparruan antolatutako bertso-saioak eta txapelketak. Jende asko biltzeaz gain, euskararen lurralde desberdinetan ainguratuta daude fisikoki ekitaldi horiek; hartara, euskal hiztunen taldearen komunitate-kohesioa ez ezik, euskal herritarren batasunaren ideia irudikatzen dute gauzatzen direnean.

Bestelako funtzio ekonomiko eta ludiko esplizituak betetzeaz gain, erreibindikaziorako jaialdi horiek helburu sinboliko garrantzitsuak betetzen dituzte; besteak beste, mugimenduaren lehenagoko eskabide ereduak jarraipena ematen diete, mugimenduaren alderdi tekniko-enpresarialak sortu ezin duen elkartasun- eta partaidetzazentzuaz hornitzen dute EMA, eta haren memoria historikoa eguneratzen laguntzen dute (Larrinaga, 2017). Hitz batean, komunitatearen ideia irudikatzen laguntzen dute aldi behin iragarritako erritual kolektibo horiek. Del Valle Korrika aztertzean gogoratzen duen bezala, euskal lurraldeak zeharkatzen dituen errituala euskal batasunaren metafora da, etengabe eguneratzen den komunitatearen (nazioaren, hiztun-erkidegoaren...) oroigarri, lurraldearen eta hizkuntzaren arteko lotura sinbolikoa ezartzen duena (del Valle, 1994).

Beraz, mobilizazio eta elkarretaratze estandarizatuak ez dira garrantzirik gabeko gertakariak EMaren helburuei begira. Randall Collinsek adierazten duenez, interakziozko erritualetan oinarritzko bi elementu uztartzen dira. Batetik, bildutakoen arreta komuna pizten duen fokua sortu ohi da. Bestetik, parte hartzen dutenen artean erretzen den afektuzko bat egitea gauzatu ohi da (Collins, 2001; 2009). Bi faktore horiek indarrez agertzen direnean, aipatu ditugun jaialdi erritualizatuetan gertatzen den bezala, bildutako jendetzaren eraginez parte hartzaileek esperientzia kognitibo eta emozional indartsuak bizi izaten dituzte, esanahi kulturalerik eta motibaziozko bulkadez hornituak. Horrenbestez, topaketa unean sortu daitekeen eferbeszentzia kolektiboaz harago, errituala garrantzizkoa da hainbat arrazoiengatik. Batetik, han sortutako emoziozko energia beste egoera sozial batzuetara eramanez dezaketelako parte hartzaileek eta, ondo-

rioz, horien ondorengo eguneroko egintzetarako garra piztuta mantentzeko balio dezakeelako. Bestetik, noizbehinkako elkarteak komunitateari buruzko atxikimendu afektiboa elikatzen laguntzen duelako eta, hartara, mugimenduaren eraketa instituzionalak eta ohiko desmobilizazioak dakarten grina-itzalaldia zuzentzen (Larrinaga, 2017).

6. EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN ZENBAIT DESAFIO, HANDITUZ DOAN ANIZTASUN SOZIALAREN EGOERAN

Bilakaera luzeko mugimendu instituzionalizatueta noizbehinka gertatzen den bezala, higadura zantzuak atzeman daitezke EMaren azken urteotako dinamikan (Goikoetxea, 2016). Egoera horren atzean mugimenduaren beraren bilakaerari lotutako barne faktoreak daude, batetik, eta mugimenduz kanpoko inguru sozial eta politiko aldakorren hertsapenak, bestetik. Orain arte azaldu den legez, bi motatako faktore horiek harreman estuan daude, euskalgintzaren konfigurazioak eta diskurtsoak etengabe testuinguru sozialari egokitu zaizkielako, eta testuinguru horrekin izandako elkarrekintzan ulertu behar direlako. Hartara, une batean mugimenduak erabilitako interpretazio-markoak eta estrategiak gau eta egun berritzen dagoen egoera sozialarekin bat ez datozenean, nora eza sortzen da.

Diskurtso testuinguruari dagokionez, ingurune politiko mudakorrean aintzat hartu beharreko aldaketa batzuek euskal nazionalismoak azken urteetan izandako bilakaerarekin zerikusia dute. Izan ere, euskal nazionalismoaren abaroan sortutako ekimena izatean, denboran zehar atzera-aurrera handiak izan dituen aliantza inplizitu bat mantendu izan du harekin euskalgintzak, batez ere bere interpretazio-markoak eratzean. Gora behera handiekin bada ere, euskara eta euskal nazioa lotzen dituen 60ko hamarkadako interpretazio markoaren eragina gaur egunera arte mantendu da, indar sinboliko eta emozional handiz bereziki euskal hiztunen belaunaldi helduetan. Baina, aliantza hori ahultzen joan da. Gaur egun euskalgintzak euskal nazionalismoarekin bizi dituen tentsio guneetako batzuk, indar nazionalistek egindako kudeaketa politikoarekin lotuta daude, bereziki EAEn egikaritutako hizkuntza politikekin, EAJren kasuan. Eta beste batzuk, indar nazionalistek izandako estrategia politikoaren bilakaerarekin, alegia, estrategia horietan euskarari esleitu zaion tokiarekin, Ezker Abertzalearen kasuan.

Instituzionalizazio autonomikoaren lehen garaiko hausturaren ondorioak arintzen joan dira, baina, EAEn gobernuaren ardua izan duen indar nazionalistak egindako hizkuntza- eta kultura-kudeaketari buruzko jarrera kritikoak daude euskararen mugimenduaren barnean. EMaren barneko erakundeen artean planteamendu desberdinak elkartzen diren arren, EAEn orain arte garatutako hizkuntza politiken inguruan nagusitu den iritzia da politika horiek dagoeneko agorturik daudela gaur egungo egoera sozialean eta linguistikoan. Euskalgintzako hainbat erakundek salatzen dutenez, osasun eta justizia zerbitzuetan eta, oro har, administrazio publikoetan euskal hiztunek izan beharreko hizkuntza eskubideen aldarrikapen historikoari ez zaio oraindino modu

egokian erantzun. Eta aldarrikapen horrek mugimenduaren eskabideetako bat izaten jarraitzen du oraindaino. Horrekin batera, hezkuntzan erabilitako hizkuntza ereduak haurrak euskalduntzeko dauzkaten mugak erakusten saiatu dira mugimenduko beste eragile batzuek. Azken aldi honetan, berriz, helduen euskalduntzearen doakotasunaren aldarrikapen publikoa zabaltzen ari da, gero eta gehiago, euskalgintzaren izenean. Euskal hiztunek euskaraz bizi ahal izateko gune sozialak sortzeko plangintzarik eta erre-gulaziorik eza ere egotzi zaie botere publiko horiei eta, oro har, euskararen aldeko hizkuntza politika ausartagoak egiteko borondate gabezia.

Beste alde batetik, indar nazionalisten bilakaera estrategikoak ere auzitan jarri du 60ko paradigma edo interpretazio markoa era gero eta nabarmenagoan. Modu teoriko esplizituan jorratu ez arren, bai euskal nazionalismo kontserbadoreak bai ezkerreko nazionalismoak beren praktika politikoan landu duten nazioaren ideia hizkuntzan oinarritutako nazio etnikoaren eredutik aldentzen joan da azken urteetan. Bestela adierazita, biek ala biek nazioaren ikuspegi zibikoa gehitu diote hasierako formulazio etniko-kulturalari. Beraz, pragmatismo politikoaren izenean bide politiko inklusiboak bilatu dituzte beren diskurtsoetan, Euskal Herriko lurraldeetan bizi diren askotariko herri-tarrei sarbidea bermatzeko aldarrikatutako balizko nazio komunitatean. Horrenbestez, borondatean eta lurraldean oinarritutako nazio baten ideia zabaldu dute, batik bat, eta ez hizkuntzan funtsatutakoa.

Kataluniako eta Eskoziako esperientziak tartean direla, formulazio zibiko horrek adierazpen landuagoak eta erradikalagoak izan ditu azken urteetan, zehazki, ETAREN osteko agertokian hainbat pentsalari gazteren proposamenetan gauzatuak²⁷. Hain zuzen ere, agertoki politiko horretan zabalduetako ziklo politikoan ezkerreko nazionalismoak eskuratu duen paperarekin eta estrategiarekin lotuta daude diskurtso berri horiek. Burujabetza beste modu batera ulertzen duten aipaturiko proposamenak askotarikoak dira eta pertsona desberdinek egindakoak baina badituzte, halaz ere, aldaketa-ildo bat markatzen duten elementu komunak. Alde batetik, aipaturiko formulazioetan diskurtso politikoaren osagai zibikoak modu esplizituan jorrotuta agertzen dira. Beste alde batetik, diskurtso horien fokua ez da nazio eraikuntzan jartzen, orain arteko planteamendu nazionalistetan ohikoa izan den bezala, estatu eraikuntzan baizik. Kataluniako eta Eskoziako ereduak jarraiki, estatu eraikuntza jartzen da helburu politiko eta, ildo beretik, estatu eraikuntzan erdietsi beharreko hegemoniarako bide jakin bat planteatzen da, demokrazia eta askatasuna bezalako balio unibertsaletan oinarritua. Esan nahi baita, euskal gizartean hegemonikoa izango den independentismorako estrategia bat aurkezten da, argi utzita euskal nazioaren kontzeptua, orain arte definituta egon den komunitate terminoetan, ezin dela abiapuntua izan gehiengo soziala irabazteko. Beraz, euskal estatuaren aldeko subjektu politiko baten eraikuntza proposatzen zaio abertzat-

27 Ildo horretako lan batzuk: Olariaga, Galfarsoro, Apaolaza eta Goikoetxea (2016); Apaolaza (2015); Goikoetxea (2015); Apaolaza, Galfarsoro eta Olariaga (2012).

letasunari lan horietan, hain justu, euskal nazionalismoak gizartean izan dituen orain arteko muga politikoak gainditu ahal izango dituelakoan. Nabari denez, estatua lortzeko estrategia horretan garrantzia galdu dute euskal nazioaren ezaugarri linguistikoa eta kulturala azpimarratu duten identitatezko diskurtsoek, euskal gizartean estatuaren aldeko gehiengo soziala osatzeko aukeraren mesedetan.

Ezbairik gabe, EMaren ohiko interpretazio markotik urrundu diren proposamen horiek astindu egin dute euskalgintzaren gunea. Sortutako zirraren eraginpean, era askotako erantzunak agertu dira EMaren barrutik, besteak beste, estatuaren, nazioaren eta hizkuntzaren arteko harremanen inguruko eztabaida eta gogoeta-sorta sakona, argitalpen, mintegi eta ikastaroetan hezurmamitu dena²⁸. Mugimenduaren eragileek gaiari buruz dituzten usteak jasotzeko egindako azterketa soziologiko batzuetan hauteman daitekeenez, euskalgintzako eragileen iritzia ez datoz beti bat formulazio horien inguruan, eta ñabardurak agertzen dira jasotako jarretetan. Hala, badaude mugimenduan estatugintzara bideratutako proposamen berriak euskalgintzaren proiektu linguistikoarekin bateragarri ikusten dituztenak, eta, badaude, aldiz, hizkuntzan oinarritutako nazio kulturalaren lorpena lehenetsi beharko litzatekeela uste izanik, balizko estatua ezinbestean eginkizun linguistiko-kulturalari makurtuta baino ikusten ez dutenak (Zabalo, Larrinaga, Iraola, Saratxo, Amurrio, Mateos, Fullaondo, Anduaga, 2016). Argi eta garbi, euskal nazionalismoak, euskal kulturgintzak eta euskalgintzak izan eta egin beharko luketenari buruzko definizio desberdinak daude tartean, baita belaunaldi arteko etenak ere. Nolanahi ere, ukaezina da lehenago euskal nazionalismo kontserbadorearekin gertatu zen talka, testuinguru desberdinean eta beste arrazoi batzuk direla medio, ezkerreko nazionalismoarekin burutu dela orain. Eta 60tik datorren EMaren *master frame* edo interpretazio-marko nagusia berriro zalantzan jarri izan dela ixten ari den ziklo politikoarekin batera.

Hain zuzen ere, EMa atakan dago gaur egun bere egintzaren norabidea zehaztu behar duelako, itxura guztien arabera, sortzen ari den ziklo sozial eta politikoaren baldintzetan eraginkortasunez jardun ahal izateko. Mugimenduaren eragileek behin eta berriro adierazten duten bezala, aro berrietarako “diskurtsoa” falta zaio euskalgintzari. Arestian aipatu denez, mugimendu instituzionalizatua da EMa. Osaketa horrek indarra eta eraginkortasuna ematen dizkio, alde batetik. Profesionalizazio- eta espezializazio-maila handiko erakundeek, organizazio burokratikoek eta enpresek osatzen dute, neurri batean, haren muina. Komunikabideak, kultura enpresak, ikerketa eta zerbitzu enpresak daude horien artean. Eta eraketa horietan egunero diharduten pertsonak pro-

28 Besteak beste, “Euskara, estatugintza eta naziogintzaren erdian” izeneko mintegia, 2015eko Ekainean *Jakinen* eta Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik eratua, UPV/EHUko 2016ko Udako Ikastaroen barruan eskainitako “XXI. mendeko abertzaletasunaz” izeneko ikastaroa, eta *Jakin* aldizkariak “Herria, nazioa, estatua ..., eta euskararekin zer?” izenpean 2015ean argitaratutako ale monografikoa.

fesionalak dira, nahiz eta aktibismoaren tradizioa txertaturik dagoen oraindino beren jardunetan (Larrinaga, 2007). Baina, beste alde batetik, profesionalizazio horrek mugatu ere egiten du mugimendua. Ildo horretan, desmobilizaturik dagoen mugimendua da EMA, mobilizazio erritualez harago, egintza kolektibo parte hartzailea, areago jendetsua, mantentzeko zailtasunak izateaz gain, ordezkatu nahi duen euskal hiztunekiko loturari atxikitzeko eragozpenak dituena.

Orobat, euskal hiztunek barne homogeneotasun handiko taldea osatuko balute bezala jardun du luzaroan euskalgintzak bere diskurtso nagusian -nahiz eta gero mugimenduaren azterketa, proposamen eta interbentzio konkretuetan landutako kontzeptuak finagoak eta zehatzagoak izan diren-. EMak behin eta berriro irudikatu duen komunitatearen ideiak hori adierazten du, behinik behin. Baina, euskal gizartea bera eraldatu eta askotarikotu den neurri berean ugaritu dira euskal hiztunen profilak ere. Hartara, askotarikoak dira gaur egun euskal hiztunen nortasun sozialak, kulturalak eta hizkuntzazkoak, eta askotarikoak hiztun horien interesak, beharrak eta itxaropenak. Euskal hiztun askorentzat, bereziki belaunaldi gazteenetakoentzat, euskara bigarren hizkuntza da eta, zenbaitzuentzat, hirugarrena. Euskal hiztunak elebidunak edo hirueledunak dira, gutxienik, eta gaitasun desberdinetakoak euskarari dagokionez. Horiek horrela, gaur egungo hiztunen motibazioaren, ezagutzaren eta erabileraren arteko harremanak konplexuak eta anizkunak dira, zeharo. Hiztun batzuen emoziozko eta identitatezko motibazioen ondoan, beste batzuen motibazio pragmatikoak edo instrumentalak egon daitezke. Eta motibazio horietatik ez da automatikoki eratortzen euskararen erabilera funtzio komunikatzaile guztiak betetzeko gauzatuko denik. Hala, euskal hiztun guztiak ez dute euskaraz bizitzeko asmorik ezta, askotan, euskararen aldeko atxikimendu berezirik ere. Hizkuntza praktika desberdinak gauzatzen dituzte euskal hiztunek, batzuek euskara esparru sozial jakin batean edo funtzio zehatz batzuetarako baino ez dute erabiltzen: eskolan, lanean... Eta, behin baino gehiagotan, ez dira hiztunen komunitate baten partaide sentitzen ezta harekin identifikatzen ere. Izan ere, zentzu soziologikoan komunitatea kohesio handiko elkarte da, barne lotura moral eta emozional sakonez trinkotua. Beraz, baliogabetu egin dira lehenagoko identifikazio arruntak gero eta konplexuagoa den errealtate sozialean.

Horren guztiaren ondorioz, EMak iraganean baino zailtasun handiagoak ditu gaur egunean askotariko euskal hiztunen izenean hitz egiteko, alegia, haien interesak identifikatu, mugimenduaren egintzara erakarri eta ordezteko. Jakina denez, beren egintza kolektiboa burutzearekin batera beren identitatea ere eraiki ohi dute mugimendu sozialek; baina, identitatea bera ez da abiapuntuko datu bat, ezta betirako emanda dagoen esentzia aldagaitza, mugimenduaren jardun intelektualean nahiz egintzan behin eta berriro (ber)eraiki beharreko definizio aldakorra baizik. Hortaz, gaurko euskal hiztunen mundu konplexua ulertzeko eta, ondoren, hiztun horiekin egintza kolektiboaren subjektu bat eraiki ahal izateko, euskalgintzak errealtate sozial eta linguistikoaren az-

terketarako tresneria kontzeptuala eguneratu beharra dauka. Dagoeneko aitortuta dago mugimenduaren barnean premia hori, eta berrikuntza intelektualak integratzen ari da haren eztabaidetan, feminismoa kasu (Agirre Dorronsoro eta Eskisabel Larrañaga, 2016). Ildo berean, askotako euskal hiztunengana iristeak eskatzen duen gogoetan urrats batzuk egiten hasiak dira hainbat eragile (Martinez de Luna, 2010; 2013; 2016). Horietako batzuen ustetan, herritarren arteko berdintasunaren aldeko diskurtso eraberituak osatu behar luke interpretazio-marko berria, balio horretan oin hartuta jasotzeko euskal hiztunen eskubideak (Iztueta Azurmendi, 2015); balio demokratikoen ildo berean, aipatzen da justizia sozialaren gaineko diskurtsoa eratzeko beharra ere (Agirre Dorronsoro eta Eskisabel Larrañaga, 2016).

Marko kognitiboaren eraberritze beharrarekin loturik, egun dauzkan baliabideekin gainditzeko zailak diren bestelako desafioak ere baditu EMak. Aipatu den aniztasunaren auzi berak sortutakoak dira erronka horiek, eta euskal hiztunen soslai desberdinekin ez ezik, hiztun horiek bizi direneko askotariko gune soziolinguistikoekin ere harremanetan daude. Izan ere, euskal hiztunak era askotako testuinguru sozial eta linguistikoetan txertaturik bizi ohi dira. EMak “arnasguneak” deituriko gune sozial elebazarren osaketaren eskabidean jarri du arreta azken urteetan (Bengoetxea Muxika, 2012; Iurrebaso, 2015). Arnasgune horiek herri txikietan irudikatu dira batez ere, haietako batzuetan atzematen baita euskal hiztunen kontzentrazio handiena eta, ondorioz, euskaraz bideratu litezkeen sozialitate sareak eraikitzeo aukerarik argiena. Baina, bestalde, eragin sozial eta pisu demografiko urriko gune sozialak osatzen dituzte herri txikiek. Aldiz, eragile batzuen ustetan, herri handien eta hirien eragin soziolinguistikoa handiagoa izan daiteke (Goikoetxea, 2016). Euskal Herriko hirietan eta gune urbanotan biltzen da, populazioaren gehiengoaz gain²⁹, fluxu ekonomikoen eta berrikuntza sozio-kulturalen dinamika. Horrela, dentsitate gutxiagoko kontzentrazioan bizi arren eraginezko eta dinamismo handiko kokagune sozialean dauden hirietako euskal hiztunak eratzeko izan daiteke EMaren erronka handienetako bat datozen urteetan, hiztun horien erreferentzialtasun sinbolikoa eta materiala ezinbestekoa baita euskararen iraupenerako.

Zalantzarik gabe, desafio horiek guztiek euskararen aldeko adostasun sozial zabalak eraikitzea eskatzen dute, eta mugimendu sozialen, gizarte eragileen eta botere publikoen eginkizuna norabide berean jarrita, guztien arteko bestelako lankidetzak gauzatzea.

Ane Larrinaga Renteria

29 Adibidez, Bilboko gune metropolitanoak, hau da, Nerbioi ibaiaren bi ertzetan bildutako konurbazioak 900.000 biztanle baino gehiago biltzen ditu berak bakarrik, Euskal Herriko biztanleriaren zati handi bat, beraz.

Bibliografia

- Abad, Begoña; Cerrato, Javier; Gatti, Gabriel; Martínez de Albeniz, Iñaki; Pérez-Agote, Alfonso; Tejerina, Benjamin (1999): *Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista*, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz. http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/cuaderno_sociologico_vasco_2/eu_cu_soc2/adjuntos/csv2.pdf
- Adler, Patricia A.; Adler, Peter eta Fontana, Andrea (1987): “Everyday Life Sociology”, *Annual Review of Sociology*, vol. 13, 217-235.
- Agirre Dorronsoro, Lorea eta Eskisabel Larrañaga, Idurre (2016): “Euskaingintza eta feminismoa: identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu eta subalternitate unibertsalak eraikitzeke proposamen bat”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 11-22.
- http://www.soziolinguistika.eus/files/lorea_agirre_eta_idurre_eskisabel.pdf
- Altuna, Olatz; Iurrebaso, Iñaki; Isasi, Xabier; Martínez de Luna, Iñaki; Ramos, Rosa; Uranga, Belen (2012): “Hizkuntzen kale-erabileraren VI Neurketa. 2011. Emaitza nagusiak”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 84. 2012 (3), 31-58.
- Altuna, Olatz (2016): “Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak”, *Soziolinguistika Klusterra*, http://www.euskaltzaindia.eus/dok/plazaberri/2016/otsaila/eus_biziberri-tzen_altuna.pdf
- Alvaro, Daniel (2010): “Los conceptos de ‘comunidad’ y ‘sociedad’ de Ferdinand Tönnies”, *Papeles del CEIC*, 52, marzo 2010. <http://www.identidadcolectiva.es/pdf/52.pdf>
- Amonarriz, Kike (1993): “Euskararen aldeko Mugimendua Sozialak gaur egun”, *Jazten*, 8, 5-11.
- Amonarriz, Kike eta Arruti, Iñaki (1998): “Euskararen aldeko Mugimendu Sozialak gaur egun”, in Joseba Intxausti (ed.), *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, Donostiako Udako XII Ikastaroak, UPV-EHU, Bilbao, 147-183.
- Apalategi, Jokin (1985): *Los Vascos, de la Autonomía a la Independencia. Formación y desarrollo del concepto de Nación Vasca, Txertoa*, Donostia.
- Apaolaza, Unai; Galfarsoro, Imanol; Olariaga, Andoni (2012): “Estatu europarra Euskal Herrian: herriaren antolaketa eta estatuaren beharrezkotasunaz”, in Hainbaten artean, *Euskal estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak*. Ipar Hegoa, Udako euskal Unibertsitatea, Bilbo, 15-30. http://iparhegoa.eus/materiala/Argitalpenak/euskalEstatua/01_herrigintzaEtaErakundeak.pdf
- Apaolaza, Unai (2015): “Nazio hizkuntza izateari utzi estatu hizkuntza izan ahal izateko”, *Jakin*, 208, 51-64.
- Bauman, Zygmunt (2006): *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, Madrid.
- Benford, Robert B. eta Snow, David A. (2000): “Framing Processes and Social Movements: An Overview and Assessment”. *Annual Review of Sociology*, vol. 26, 611-639.

- Bengoetxea Muxika, Xabier (2012): “Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasguneren egoeraren behaketa”, *BAT. Soziolinguistika Aldizkaria*, 85. dossier, 75-118. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Bengoetxea.pdf>
- Berger, Peter eta Luckmann, Thomas (1986): *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Bourdieu, Pierre (1991): *Language and Symbolic Power*, Harvard University Press.
- Bourdieu, Pierre (1997): *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*, Anagrama, Barcelona.
- Collins, Randall (2001): “Social Movements and the Focus of Emotional Attention”, in Jeff Goodwin, James Jasper eta Francesca Polletta (ed.), *Passionate Politics: Emotions and Social Movements*, The University of Chicago Press, Chicago, 27-44.
- Collins, Randall (2009): *Cadenas rituales de interacción*, Anthropos, Barcelona.
- Connor, Walker (1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madrid.
- De Marinis, Pablo (2010): “La comunidad según Max Weber: desde el tipo ideal de la Vergemeinschaftung hasta la comunidad de los combatientes”. *Papeles del CEIC*, 58, marzo 2010. <http://www.identidadcolectiva.es/pdf/58.pdf>
- Del Valle, Teresa (1994): *Korrika: Basque Ritual for Ethnic Identity*, University of Nevada Press, Reno.
- Domènech, Miquel *et al.* (2002): “Movimientos sociales y conocimiento científico”, *Revista de Psicología Política*, 25, 69-84.
- Eisenstadt, Shmuel Noah (1972): *Modernización, Movimientos de Protesta y Cambio Social*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Epstein, Steven (1998): *Impure Science. AIDS, activism and the politics of knowledge*. University of California Press, Berkeley.
- Erize, Xabier (2011): “Hizkuntza ekologiak iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 81, 2011 (4), 67-86. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Erize%20BAT%2081.pdf>
- Eusko Jaurlaritza (2013): *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz. www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.Inkesta.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2016): *V. Inkesta Soziolinguistikoa (aurkezpen publikoa)* https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EAE.pdf?1476439692
- Eyerman, Ron eta Jamison, Andrew (1992): *Social Movements. A Cognitive Approach*, The Pennsylvania State University Press, Pennsylvania.
- Fishman, Joshua A. (1989): *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*, Multilingual Matters, Clevedon-Philadelphia.
- Gamson, William (1992): “The Social Psychology of Collective Action”, in Aldon Morris eta Carol Muller (ed.). *Frontiers in Social Movement Theory*, 52-76, Yale University Press, New Haven, London.

- Garmendia Iturria, Haritz (2015): “XXI. mendeko euskalgintza, euskararentzako diskurtso eraginkor baten bila: estatua, nazioa, herria eta hizkuntza, askatu beharreko korapiloa”. X Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Kongresuan aurkeztutako ponentzia.
- Garmendia, Haritz eta Urteaga, Eguzki (2017): “La langue basque dans le discours nationaliste basque”. *Cahiers Internationaux de Sociolinguistique* 2017/1 (nº 11), pp. 169-199. L’Harmattan.
- Goikoetxea, Garikoitz (2016): *Euskara irabazteko bidean*. Elkar. Berria. Jakin.
- Goikoetxea, Jule (2015): “Euskara, estatua eta feminismoa”. *Jakin*, 208, 77-91.
- Goodwin, Jeff; Jasper, James eta Polletta, Francesca (2001): “Why Emotions Matter”, in Jeff Goodwin, James Jasper eta Francesca Polletta (ed.), *Passionate Politics: Emotions and Social Movements*, 1-24. The University of Chicago Press, Chicago.
- Goodwin, Jeff eta Jasper, James (2006): “Emotions and Social Movements”, in Jan E. Stets eta Jonathan H. Turner (ed.), *Handbook of the Sociology of Emotions*, 611-635. Springer, New York.
- Harguindeguy, Jean-Baptiste eta Pasquier, Romain (2010): “Langue et politique. Les mobilisations ethnolinguistiques en Europe”, *Cultures & Conflits*, 79-80 (Automne/Hiver 2010), 7-18. <https://conflits.revues.org/17993>
- Hunt, Scott, Benford, Robert eta Snow, David (1994): “Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos”, in E. Laraña and J. Gusfield (ed.), *Los nuevos movimientos sociales. De la ideología a la identidad*. CIS, Madrid, 221-249.
- Iurrebaso, Iñaki (2012): “Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan”. *BAT. Soziolinguistika Aldizkaria*, 84, 2012 (3), 103-120.
- <http://www.sociolinguistika.eus/files/1%C3%B1aki%20Iurrebaso%20II.pdf>
- Iurrebaso, Iñaki (2015): “Udalerrri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan. EAE, 1981-2011”, *Bat, Soziolinguistika Aldizkaria*, 95, 71-103. http://www.sociolinguistika.eus/files/inaki_iurrebaso.pdf
- Iztueta Azurmendi, Ibai (2015): *Cultura Vasca vs Euskal Kultura*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Jasper, James (1997): *The Art of Moral Protest*, Chicago University Press, Chicago.
- Jasper, James (2011): “Emotions and Social Movements: Twenty Years of Theory and Research”. *Annual Review of Sociology*. Vol. 37, 285-304. <http://www.annualreviews.org/doi/pdf/10.1146/annurev-soc-081309-150015>
- Juaristi, Patxi (2017): “Le mouvement de revitalisation de la langue basque dans la Communauté Autonome Basque”. *Cahiers Internationaux de Sociolinguistique* 2017/1 (nº 11), pp. 137-167. L’Harmattan.
- Kemper, Theodore (2001): “A Structural Approach to social Movements Emotions”, in Jeff Goodwin, James Jasper eta Francesca Polletta (ed.), *Passionate Politics: Emotions and Social Movements*, 58-73, The University of Chicago Press, Chicago.
- Krutwig, Federico (Sarrailh de Ihartza) (1979): *La Nueva Vasconia*, Ediciones Vascas, Donostia.

- Larrinaga, Ane (1996): “Euskararen aldeko mugimendua. Diskurtsoaren interpretazio-markoak”, *Inguruak, Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política* 15, 155-178.
- Larrinaga, Ane (2007): *Euskal kulturgileak Euskalgintza mugimenduaren eraikuntzan*. Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Larrinaga, Ane (2008): “Kulturgileak mugimendu sozialen tradizioan: euskal intelektualak Euskalgintzan”. *Uztaro*, 66, 87-103. <http://www.uztaro.eus/artikulua/67/kulturgileak-mugimendu-soziale-tradizioan-euskal-intelektualak-euskalgintza/975>
- Larrinaga, Ane eta Amurrio, Mila (2016): “The Ethno-linguistic Movement and Linguistic Self-determination in Euskara”, in Pedro Ibarra eta Ashild Kolas (ed.), *Basque Nationhood, Towards a Democratic Scenario*, Peter Lang, Oxford.
- Larrinaga, Ane (2017): “Los movimientos sociales como contextos emocionales: el impulso emocional del movimiento lingüístico vasco”, *Athenea Digital, Revista de Pensamiento e Investigación Social*. (prentsan)
- Marko Juanikorena, J. Inazio (2010): “ENEKuS eredu, lan-munduko organizazioetan euskararen normalizaziorako eraldaketa kudeatzeko erreferentziatzeko eredu”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 76, 2010 (3), 125-144. <http://www.soziolinguistika.eus/files/J.%20Inazio%20Marko.%20ENEKuS%20eredu,%20lan%20munduko%20organizaioetan%20euskararen....pdf>
- Marko Juanikorena, J. Inazio (2000): “Hizkuntza prozesuen ingeniartzita”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 34, 65-78.
- Martínez, Zesar; Casado, Beatriz eta Ibarra, Pedro (2012): “Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak”. *Lan Koadernoak, Hegoa*, 57. http://publicaciones.hegoa.ehu.es/asets/pdfs/220/Lan_Koadernoak_Hegoa_57.pdf?1488539765
- Martínez de Luna, Iñaki (2010): “Framing: komunikazio teoretatik euskararen beharri-nerara”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 76 (3), 53-67.
- <http://www.soziolinguistika.eus/files/I%20C3%B1aki%20Martinez%20de%20Luna.%20Framing%20Komunikazio%20teoretatik%20euskararen....pdf>
- Martínez de Luna, Iñaki (2012): “Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak”. *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 84, 2012 (3), 121-137. <http://www.soziolinguistika.eus/files/I%20C3%B1aki%20Mart%20C3%ADnez%20de%20Luna.pdf>
- Martínez de Luna, Iñaki (2013): “Euskarak duen Framing berri baten premia asetzeko proposamena”. Dosierra. *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 86, 13-83. http://www.soziolinguistika.eus/files/I%20C3%B1aki%20Mart%20C3%ADnez%20de%20Luna_0.pdf
- Martínez de Luna, Iñaki (2013): *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz. http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Euskara%20EAEn.pdf
- Martínez de Luna, Iñaki (2016): “Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 39-56. http://www.soziolinguistika.eus/files/inaki_martinez_de_luna.pdf
- Melucci, Alberto (1999): *Acción colectiva, vida cotidiana y democracia*, El Colegio de México, Centro de Estudios Sociológicos, México.

- Melucci, Alberto (2001): *Vivencia y Convivencia. Teoría Social para una Era de la Información* (Jesús Casquetteren edizioa). Trotta, Madrid.
- Mendiguren, Xabier eta Iñigo, Joxe (2006): “The social movement in favour of the normalization of the Basque language”, in Maria-Jose Azurmendi eta Iñaki Martínez de Luna (ed.), *The case of Basque: past, present and future*. Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- Mendizabal Altuna, Jasone (2016): “Euskaltzaleen Topaguneko esperientzia arrakastatsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren osagarritasuna”, *BAT, Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 32-37. http://www.soziolinguistika.eus/files/jasone_mendizabal.pdf
- Muniozuren, Fernando (1992): “Herriaren eskuhartzeaz euskararen berreskurapenean”. *BAT. Soziolinguistika Aldizkaria* 6, 43-51. <http://www.soziolinguistika.eus/files/4%20Fernando%20Muniozuren.pdf>
- Odriozola, Joxe Manuel (2004): *Euskalgintzaren lekukoak*. Elkar, Donostia.
- Odriozola Irizar, Onintza eta Zabalo Bilbao, Julen (2014): “Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: ardatz ala osagarri?”. *Uztaro* 91, 67-82. <http://www.uztaro.eus/artikulu/114/euskararen-garrantzia-diskurtso-abertzalean-ardatz-ala-osagarri/1456>
- Olariaga, Andoni; Galfarsoro, Imanol; Apaolaza, Unai; Goikoetxea, Jule (2016): *Independentzia helburu*, Txalaparta, Tafalla.
- Sánchez Carrión, José María [Txepetx] (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, Donostia.
- Sasin, Mariano G. (2010): “La comunidad estéril. El recurso comunitario como forma de autodescripción social”. *Papeles del CEIC*, 57, marzo 2010. <http://www.identidadcolectiva.es/pdf/57.pdf>
- Shutz, Alfred (1993): *La construcción significativa del mundo social*, Paidós, Barcelona.
- Snow, David eta Benford, Robert (1988): “Ideology, Frame Resonance and Participant Mobilization”, in B. Klandermans, H. Kriesi and S. Tarrow (ed.), *From Structure to Action: Comparing Social Movement Research across Cultures*. International Social Movement Research I. Greenwich: JAI Press.
- Snow, David eta Benford, Robert (1992): “Master Frames and Cycles of Protest”, in A.D. Morris and C.M. Mueller (ed.), *Frontiers in Social Movement Theory*, Yale University Press, New Haven, London.
- Tejerina, Benjamin (1992): *Nacionalismo y lengua: los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*, CIS, Madrid.
- Urla, Jacqueline (2012): *Reclaiming Basque: Language, Nation and Cultural Activism*, University of Nevada Press, Reno.
- Zabalo, Julen; Larrinaga, Ane; Iraola, Iker; Saratxo, Mikel; Amurrio, Mila; Mateos, Txoli; Fullaondo, Arkaitz; Anduaga, Uxo (2016): *Euskal estatuaurreko iritziak eta jarrerak Euskal Herrian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa*, Ipar Hegoa, Parte Hartuz, Bilbo. http://www.ehu.eus/documents/2450856/0/euskal_estatua_irudikatzen